

**Herririk Herri | 2**

Kurutziagako auzokideak udalagaz haserre, txosnen berri ez ematearren

**Kultura | 7**

Nestor Basterretxeak egin du aurtengo Liburu eta disko Azokarako kartela



Gehigarria:

**Durangoko Jaiak**



**DURANGOKO JAIK | 6-7**

## Guka, lehenengo pertsonan, pluralean



EHEk, AEK-k, Berbaro Taldeak eta Ibaizabal ikastolak Guka gunea sortu dute txosnetan

**AUKERA AZOKA**

Acuática Sport Juan Antonio Abasolo, 3 DURANGO Tif. 94 465 72 96	Etixedreams Miheldi, 4 DURANGO Tif. 94 620 21 38
Caribu Juan Antonio Unzueta, 4 MATIENA	NK Artekalea, 24 y 37 DURANGO Tif. 94 681 06 78
Chiloé Urban Wear Juan Antonio Abasolo, 1 DURANGO Murrueta, local 9, Hiper Eroski ABADIÑO Tif. 94 620 06 60	Susi Uribarri, 17 DURANGO Tif. 94 440 19 08
Cien Pies Ibaizabal, 6 DURANGO	Sylhe Zeharhalea, 7 DURANGO Tif. 94 603 04 24

**MATIENA** ko frontoian  
2012ko urriak **6-7**

Orduetgia  
10:00-14:00  
17:00-21:00

Haurrentzako ludoteka

**Mañaria | 5**

Zalloventako instalazioak kentzen hasi dira dagoeneko

**Iurreta | 4**

Maiztegin kalteak eragin zituzten San Migel Egunean

**Durangaldea | 4**

Galdakaoko ospitalera doan autobusa Elorriora helduko da

**Elorrio | 3**

Nagusiek probatu dute Aldatsekuako ariketa gunea

## DURANGO

### "Udalak ez digu ezer esan, eta haserre gaude"

Kurutziaga kaleko auzotarrek diote atzora arte ez dutela txosnen kokapenez berri ofizialik eduki

**K**urutziaga kaleko auzotarrek kezka agertu dute jaietan txosnak etxe alboan ipiniko dizkietelako. Baina, kezka gainera haserre ere badaukate. "Udalak ez digu ezer esan, eta haserre gaude". Ez ei dute inongo berri ofizialik eduki; gaur dira batzartekoak udal ordezkariekin. Gainera, udala gezurretan ibili dela kritikatu dute. Antza denez, euren kaleko jaietan irailaren 14an udal ordezkari bat egon zen eta, zurrumurruez galdetuta, udal ordezkariak erantzun zien ez zegoela ezer segurua. "Hori esan

eta egun bira *Anboto*n publikatu zenuten erabakia". Jaiak hasteko aste bete bakarrak falta denean, udalak oharra zabaldu du, asteon kalea lanengatik itxi egingo dela esanez. "Orain diote kalea obragatik moztu dutela, baina gezurra da. Ez dute esan eszenatokia muntatzen dabilzala". Informazio falta kritikatu dute. Edozelan ere, ez dute txosnarik gura Kurutziagan.

*Anboto*n publikatutako albistearen ostean, Txosna Batzordearen partetik ere jaso dute kokapenaren berri. "Eurek ere esan digute Kurutziaga leku txarra dela".



Eszenatokia muntatzen ibili dira asteon; atzo oraindik amaitu barik zegoen.

Hainbat arrazoi plazaratu dituzte Kurutziagako bizilagunek leku txarra dela esateko. Baldintza aldeetik, "puntu beltzak" dauzkala diote. Ertzaintzaren komisaldegia alboan dagoela-eta, istiluak sor-

**Auzokideak, udalaz: "Orain diote kalea obragatik moztu dutela, baina gezurra da"**

tzeko arriskua dagoela diote. "Etxeetako tuneletan ere edozer gertatu ahal da". Gainera, bizilagun eta komertzio asko daudela gogoratu dute. "Kalteak ikaragarriak dira". ■ M.Onandia.

## Andaluziarren topaketa egingo dute asteburuan Landako Gunean

Landako Gunea andaluziarren elkargune izango da bihar eta etzi. Euskal Autonomia Erkidegoko andaluziarren elkarteek urtero antolatzen duten topaketa da, eta hirugarrenez ekarriko dute Durangora. Hango kulturagaz lotutako hainbat ekitaldigaz osatu dute egitaraua. Urtero, Andaluziako herri bat gonbidatzen dute topaketara; aurten Doña Mencia izango da. Hango artistak ere etorriko dira Durangora.

**Andaluziarren hamahiru elkarte daude EAEn, eta 6.500 laguneko sarea daukate**

Bihar, 12:00etan hasiko dute jaialdia, harrera ekitaldiagaz. Tronperri dantza taldeak, Durangoko Tabira musika bandak eta Durangoko Andaluziarren etxeko abesbatzak eta dantzariak ikuskizun bateratua egingo dute, 12:30ean. Bultzatzaileek garrantzia berezia eman diote bihar gaueko afariari. Vembrulé flamenko taldeak etzi 17:30ean eskainiko duen lana interesgarria izango dela ere esan dute.

Andaluziarren hamahiru elkarte daude EAEn, eta 6.500 laguneko sarea daukate. Euren komunitateaz gainera, herritar guztiak animatu gura dituzte topaketan parte hartzea. ■ M. O.

## OTXANDIO

### Enplegua bultzatuko dute udalak eta Zuiako Koadrilak

Lan egoera aztertuko dute, ostean jarduera sustatzeko politikak martxan ipintzeko

Otxandiok eta Zuiako koadrila osatzen duten sei herriek eskualdeko enplegu plan sortuko dute. Eskualdeko lan egoera aztertzea izango da proiektuaren lehen helburua, eta gero eskualdeko lan jarduera sustatzeko politikak ipiniko dituzte martxan. Otxandion eta Zuiako Koadrilako herrietan (Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia) 11.000 lagun bizi dira eta %11 daude lan barik.

**Epe ertain eta luzera sortu daitezkeen enplegu aukerak identifikatzeko balioko du**

Proiektua hiru hiletan gauzatuko dute. Epe horretan, eskualdeko erakundeek, gizarte eragileek, enpresek eta bestelako entitateek, elkarlanean eta adostasun handienagaz, ekintza zehatz eta programa berezien multzo estrategikoa taxutuko dute, helburu batez: eskualdean enplegua bultzatzea eta garatzea, lan merkaturako gorabeherek sorrarazita-

ko desorekak gainditzeko. Zehatzago, planak eskualdeko produktio-sektoreetan (bai industriar, bai zerbitzu sektoreetan) epe ertain eta luzera sor daitezkeen enplegu aukerak eta ekoizpen jarduerak identifikatzeko balioko du, langileen kualifikazioa lan-merkatuaren egungo egoerara egokitzeko, eta enpresen beharriaren konexioa hobetzeko. Planaren barruan, eskatzaileen enplegarritasuna zelan hobetu ere aztertuko dute, gaur egun dauden lanpostuei zelan eutsi, eta beste hainbat gauzaren artean, enplegu politikak berritu eta informazio teknologikak garatu.

**Foroa, adostasuna lortzeko** Plan honen inguruan ahalik eta adostasun handiena biltzeko asmoz, lan-mahaiak eta parte-hartze foroa sortuko dira, eta eurentan bertako erakundeek eta entitateek parte hartuko dute, gizarte eragileekin, enprekin eta eskualdeko edo bertako udalerritakoren batean ekonomia eta gizarte garapena sustatzen duten beste entitateekin batera. ■ J.D.

## BERRIZ

### Konpostajeko lehen fasean 11 tona batzea lortu dute

Hobekuntza batzuk egin eta udazkenean herritar gehiagorengana zabalduko dute egitasmoa

Apiriletik hona Berrizko konpostaje plantan 11 tona konpost sortu dituzte. 60 familiak eta bost merkatarik parte hartu dute lehen esperientzia pilotuan. Lehen konpostea atera dute dagoeneko, eta Orland Isoird alkateak adierazi duenez, "oso kalitate onekoa da".

**Lehenengo konpostea atera dute eta alkateak adierazi duenez, "oso kalitate onekoa"**

Udazken honetan Berrizklatu kanpaina horretako bigarren fasea hasiko dela azaldu du Isoirdek. Erabiltzaileek betetako inkestak eta sei hileotako jarduna aztertuko dute, eta hobekuntza batzuk egin eta gero, familia gehiagorengana zabalduko dute egitasmoa -60 eta 100 artean-.

Bigarren fase horretarako zabor organikorako kontainer bat ezartzea eta konpostaje plantako sarbidea atontzea aztertzen ari dira, besteak beste. ■ A. U.

## GARAI

### Pilak bota ahal izateko kaxa bat ipiniko dute udaletxean

Balio bako pilak botatzeko aukera edukiko dute garaitarrek udaletxean. Bulegoan bertan kaxa bat ipiniko dute horretarako, udal ordezkariak azaldu dutenez. Orain arte lur azpian zeuden kontenedoretan zegoen pilak botatzeko lekua. Baina, obra egin dute

edukiontzia kanpoan egokitze-ko, eta orain ezin dira horra bota. Horregatik, gune berria ezartzea erabaki dute. Amankomunazgoak erraztuko ei du pilak botatzeko kaxa.

Bestalde, traste zaharrak hileko lehen eta hirugarren eguazteten batzen direla gogoratu dute arduradunek. Antza denez, askok ez dute data kontuan hartzen eta kontenedore inguruak zikin gertzen dira denbora luzean. Aurreko egunean atera behar dira trasteak, eguazten goizean pasatzen dira-eta beharginak. ■ M. O.



ELORRIO

# Nagusiek probatu dute Aldatsekuako ariketa gune berria

Ariketa fisikoetarako aparatuak ipini ditu udalak jubilatuen etxean; batzuk hasi dira erabiltzen

**N**agusiek ariketak egin ahal izateko dozena bat aparatu instalatu ditu udalak Aldatsekuan. Indarra, koordinazioa eta malgutasuna hobetzeko balio dute. Hainbat nagusi batu dira inaugurazioan, parke berriaren itxura ikusteko. Aparatuen inguruko informazioa jaso dute, eta probatzen ere ibili dira batzuk. Esaterako, Segundo Iglesiasek hanken-

tzako tresna bat aukeratu du. Apur batean pedalei eragiten ibili da eta aitortu du aurreko egunetan ere bertan egon dela: "Egunero etortzen naiz, baina bost minutu bakarri egiten ditut". Alboan Ana Otadui alkateak egin du ariketa berbera, eta berbetarako aprobetxatu dute pedalei eragiteko tartea.

Elvira Floresek eta Juan de Dios Escribanok beste tresna bati



Ana Otadui alkatea eta Segundo Iglesias ariketa egiten Aldatsekuan.

erreparatu diote, besoak lantzeko bat. Kezka daukate, inauguratu aurretik baten batek aparatuak kaltetu ei dituelako. Otadui esan

**Otadui esan du aspaldiko eskaera zela horrelako gune bat sortzea**

du aspaldiko eskaera zela horrelako gune bat sortzea. Guztira, 9.155 euro inbertitu ditu udalak egitasmorako. ■ M. Onaindia

# Tiro hotsak jairako doinu bihurtuko dira domekan

Errebonbiloen alardeaz gainera, bizikleta igoera, kontzertuak eta omenaldia egongo dira asteburuan

Punta biko txapela buruan, sasoi baten egiten zituzten arma alardeen antzezpina egiteko batuko dira domeka honetan Errebonbiloak. Hamabost 'soldadu', txistulariak eta atabal jotzailea 05:00etan batuko dira lehenengo tiroak botatzeko. Arratsaldean hasiko dute alardea, 17:00etan: Errosarioko Amari agurra eta dantza saioa plaza. Errebonbilo Egunaren inguruan, gainera, geroago eta ekitaldi gehiago antolatzen dira jai giroan.

Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko kideei omenaldia egingo diete zapatuan. Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

izango dira omenaldian eta dua la 25 urte Europako Mendietan izandako istripuan hildako kideak oroitu dituzte.

## Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko kideei omenaldia egingo diete zapatuan

Zapatu goizean, bizikletaz Mendrakara igoteko deia egin du txirrindulari elkarteak, 11:00etan plazatik irtenda. Domekan Durangaldeko txistulariak ariko dira plaza, 13:15ean, Berrioxoa abesbatzaz eta Durangoko Metalen taldeagaz. ■ A.U.

# Ludotekaren prezioa %80 igotzea kritikatu du Bilduk

laz 50 euro ordaindu behar ziren ludotekagatik, aurten 90; neurritz kanpokotzat jo du koalizioak

Ludotekako prezioa igotzea txarto ikusi du Bildu koalizioak. EAJk eta PPK onartuta, %80 igoko dute aurten kuota. Iaz 50 euro ordaindu behar ziren zerbitzuagatik, eta aurten 90 euro. Prentsa ohar bidez, gobernu taldearen kontra agertu da Bildu: "EAJk proposatzen duen %80ko igoera salatu nahi dugu, guztiz neurritz kanpokoa iruditzen zaigulako. Are gehiago, herritarrek pairatzen ari diren krisia delata". Gainera, ludotekara bi edo hiru ume eroaten dituztenek ez ei dute merkeago edukiko. "Ez dute ordaintzeko inongo obaririk ezta erreztasunik planteatu". Bi ume eroatea 180 euro kostatuko da, eta hiru ume 270. Neurriari soluziorik ez ematea ere leporatu dio

EAJri: "Prezio publikoa %80 igo beharrean, gobernu taldeak beste aukera batzuk aztertu eta burutu beharko lituzke gastua murrizteko".

## "Gobernu taldeak beste aukera batzuk aztertu eta burutu beharko lituzke"

Udalaren aurrezkia 1,1 milioi euroan handitu dela publikatu eta gutxira neurri hau hartzea lotsagarria dela dio Bilduk. Igoeraren ondorioz, ume kopurua txikitu, eta zerbitzuaren desagerpenaren hasiera izango ote den beldur da Bildu. ■ M. O.

2012/2013 IKASTURTEA

**IKASTAROAK DOHAINIK**

LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)  
 KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	Orduak
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua	UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	60 40
	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeako makinak eta sistemak prestatzea	UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena	80 30
(FMEO110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak (TIG) egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
(FMEO210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea	UF1624 Basiko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1625 Elektrodo estaliekien karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea	90
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF0249_2 Etxean egiten den higieena eta osasun arreta	UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa	90
		UF1672 Oxigas soldadura	70
(SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF1017_2 Erakundeetan, higieena -elikaduraren arretan esku hartzea.	UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higieena-osasun beharrak	70
		UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua	50
		UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak	50

**LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)**

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEO210 Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG	430	
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEH0109 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	280	
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: TMVLO109 Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan	270	
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: SSCS0208 Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitaria	480	

**KATALOGO MODULARRETIK KANPO**

Altueran lan egitea	20	<b>DOAN</b>
Garabietan lan egitea	20	
Eskorgan lan egitea	20	
Soldadoren homologazioa	60	

ETXEBARRI AUZOAZ 2/G 22 Pk.  
20550 ARETXABALETAKO (GIPUZKOA)

WWW.IARETXABALETAKO.COM  
IA@IARETXABALETAKO.COM

T. 943 797 900 / 943 797 943  
F. 943 770 955

ELORRIO

## Elorrioko hamar irakasle ari dira pedagogia etikoa ikasten

Elorrioko ikastetxeetako hamar irakasle pedagogia etikoa inguruko ikastaroa jasotzen ari dira. Udalak eta Baketik fundazioak hitzarmena sinatu zuten otsailan, gatazka politikoaren ondorioz gizartearen sortutako hausturak bideratzen ahalegintzeko. Berradiskidetze kultura deitzen diote zeregin horri. Hainbat ekin-tza eratu zituzten ildo horri jarraituta, eta horietako bat da Txintxi-

**Ikastaroa jaso eta gero, euren ikasleekin landuko dituzte edukiak**

ri ikastolako, Herri eskolako eta Lourdes ikastetxeetako hamar irakasleen formazio ikastaroarena.

Irakasleentzako baliabide teoriko zein praktikoak eskaintzea egi da helburua. Zortzi ikasgai dauz-kate: muga, eskerra, kontzientzia entzutea, giza duintasuna, elkar-riketa, enpatia, pazientzia eta maitasuna. Ikastaroa jaso eta gero, ikasleekin landuko dituzte edu-kiak. ■ M. O.

DURANGALDEA

## Ospitalerako autobusa Elorriora ere ailegatuko da

Bilbo-Ospitalea-Durango linea Elorrioraino luzatuko dute, Abadiño eta Atxondotik pasatuta

**D**urango Galdakaoko ospitaleagaz lotzen duen autobus publikoa Elorrioraino ailegatuko da laster. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibuseen sarea berrantolatu du eta, azken alegazioen faltan, onartzeaz dago. Bilbo-Ospitalea-Durango eta Durango-Elorrio lineak fusionatu egingo dituzte, geltoki berberak mantenduta. Ondorioz, elorria-

**Elorriarrak, atxondarrak eta abadiñarrak bidai bakarrean joan ahalko dira ospitalera**

**Alkateak adierazi du herrian eskaera historikoa izan dela ospitalera autobusa ipintzea**

rrak, atxondarrak eta abadiñarrak bidaia bakarrean joan ahalko dira ospitalera. Ana Otadui Elorrioko alkateak adierazi du herrian eskaera historikoa izan dela. Abantaila nagusi bi ikusten ditu: autobus aldaketarik egin behar ez izatea eta jubilatuek txartela behin bakarrik erabiltzea.

Aldundiaren asmoa udan eta Gabonetan zerbitzua kentzea da, eta Elorrioko Udalak horren kontrako alegazioak aurkeztu ditu, Otadui azaldu duenez.

**Mañaritik Bilbora**

Aldundiak Mañaria eta Izurtza ere hartu ditu kontuan sare berrian. Planaren arabera, egunean hiru autobusek irtengo dute Mañaritik Bilbora eta alderantziz. Oraindik ez dago zehaztuta zein ordu-tan. Durango-Bilbo linearen luzapena izango da. ■ M. Onaindia



Bizkaibuseko autobus bat, Elorrioren, San Pio X geltokian.

IURRETA

## Maiztegin kalteak eragin zituzten San Migel Egunean

Elixalde kalean udalak dituen lonjetara ere sartu ziren eta kalea garbitzeko makina hartu

Maiztegi ikastetxean sartzen saiatu ziren San Migel Egunean. Eskolako gimnasioko kristalak apurtu zituzten eta sarrerako atearen sarraila ere bai. Horrela egiaztatu dute ikastetxeko arduradunek. Gainera, Elixalde kalean Iurretako Udalak dituen lonjetara ere sartu ziren. Kaleak garbitzeko erabiltzen duten makina atera zuten kalera eta harekin jolasean harrapatu zituzten gazte batzuk. Horrela argitu du Iñaki Totorikaguena alkateak.

Alkatearen berbetan, "hamalau-hamabost urteko gaztetxo batzuen okerkeria izan da". Udaltzaingoak ez du gaueko txandarik egiten eta Jai Batzordeko kide batzuek harrapatu zituzten. "Lonja guztiak zabaldu zituzten, baina, ez zuten kaleak garbitzeko makina bat baino topatu eta horregaz jolasean ibili ziren". Maiztegi ikastetxean sartzen saiatu zirenak gazte horiek izan ziren edo ez argitzerik ez du izan alkateak.

**Eskolako gimnasioko kristalak apurtu zituzten eta sarrerako atearen sarraila ere bai**

Oraindik ez dute kalkulatu zenbateko kaltea eragin duten. Seguruetxeari parte emango diote.

**Jai Batzordeko kide batzuek harrapatu zituzten, atentzioa deituz**

**Horrelako jarrerak onartezinak direla esan du Iurretako Jai Batzordeak**

**"Ez da sustatu nahi duguna"** Horrelako jarrerak onartezinak direla esan du Jai Batzordeak: "Jaien berezko errespetuzko izaera alai horretatik at herritarren ondasunak kaltetzea beste helbururik ez zuten izangertaera horiek, eta hori ez da sustatu nahi dugun jai eredu".

Iurretako Jai Batzordeko kideek, domekan jaiak bukatu bitartean, sanmigelez gozatu gura duen orori luzatu diote bertaratzeko gonbidapena "elkarren errespetua eta herritarren parte hartzea sustatuz jai ahaztezinak bizi ditza-gun". ■ A. Basauri

## Jaiaz bustitako azken egunak dituzte Iurretan

Gaur Zea Mays taldeak joko du, eta bihar herria zoologiko bihurtzeko deialdia zabaldu dute

Domekan agurtuko dituzte sanmigelak Iurretan. Ordura arte, makina bat ekitaldi egongo dira. Gaurko, umeentzako berbenaz gain, ska eta rock doinuak entzungo dira kontzertuan: Skasti, Zea Mays eta Tximeleta ariko dira. Bihar, herria zoologiko bihurtzera deitu dituzte herritarrak.

Kriterium soziala, herri bazkaria, XIII. Bizikleta Festa eta bertso jaialdia ere izango dira bihar. Etzi, berriz, XIV. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, gastronomia txapelketa, eta, dantzari eta agintarien kalejira.

Bestalde, herriko banderaren mendeurrenean izan duten babesa eskertu du 1911 Herri Batzordeak. Oroigarria eman die elkartei: Jai Batzordea, Gerediaga, Harria, Zaldai, Gazte Asanblada, Iurreta kirol elkarte, Txirindulariak, Kimuak, Fasoden, Emoi-xu, Anderebide, Iurretako Korua, Amaiur eta Mikel Deuna dantza taldea. ■ A. B.

**1911 Herri Batzordeak izan duen babesa eskertzeko oroigarria banatu du**



Famili argazkia, udaletxeko bilkura aretoan. I. Irazabal

## Antzinako eztegua iruditan

Martxoan Oromiñon antzeztu zuten antzinako ezteguaren irudiak kaleratu dituzte antolatzaileek. Batetik, argazkiak jaso dituzte, eta bestetik, bideo bat egin dute. 40 ale inguru saldu dituzte eta oraindik ere aukera dago ikus-entzuneko erosteko: 18 euro balio ditu. Azaldu dutenez, egun horretako momentuak zabaltea da helburua, parte hartu zutenen artean ez ezik, bertan egon ez arren horrelako ekitaldietan interesa dutenen artean. ■ A. B.

## Igogailu eta fatxadetarako, diru-laguntzak

Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko, traba arkitektonikoak kentzeko eta igogailuak jartzeko diru-laguntzak emango ditu udalak. 2012ko aurrekontuan 40.000 euro daude gordeta eta urriaren 26ra arte egin ahal da eskaria. 2011ko urriaren 1etik 2012ko irailaren 30era obra-lizentzia lortu duten obrak lagunduko dituzte, eta dagokion udal ordenantzako baldintzak bete dituztenak. 2009tik hona ia 97.800 euro erabili dira bost igogailurako, sei estalkira-ko eta teilatu baterako. ■ A. B.



MAÑARIA

# Zalloventa harrobiko instalazioak kentzen hasi dira dagoeneko

Berreskuratze proiektua laster onartuko du Eusko Jaurlaritzak; datorren urtean hasiko dira betetzen

**Z**alloventa harrobia bere amaiera fasean dago. Hori baieztatu du Jorge Letamendiak, Eusko Jaurlaritzako harrobi eta energia zuzendariak. "Harrobiaren kanpoko instalazioak kentzen hasi dira, eta berreskuratze proiektua laster onartzea itxaroten dugu". Gabonak bitartean ibiliko dira egiturak eta tresneria kentzen. Harrobiaren zuloa betetzeko lana, berreskurapena, dato-

rren urtean hasiko dela esan du Letamendiak. Aurreratu du enpresa badabilela egitasmo hori diseinatzen. Zalloventako zuloa eta eremua betetzeko 300.000 metro kubiko material erabiliko dute. Enpresa berekoa da Markomin Goikoa harrobia, eta horko soberakina aprobetxatuko ei dute. Material hori kalitatezkoa dela dio Letamendiak: "Gure baldintza izan da materiala lehen mailakoa izatea. Horretan egonkortasuna bermatzen du".

**Markomin Goikoa harrobiko soberakina aprobetxatuko ei dute Zalloventa betetzeko**

**Letamendia: "Gure baldintza izan da materiala lehen mailakoa izatea"**

**Atxarten, azterketarik ez**  
Atxarte eta Atxa-Txiki harrobiak berreskuratze proiektuaren ezaugarriak dira. Horretaz galdetuta, Letamendiak dio ez dela beharrezkoa ingurumen eraginaren azterketarik. AHTaren obretan ateratako materiala ere lehen mailakoa dela esan du. ■ M. Onaindia



Hasi dira Zalloventako instalazioak kentzen.

## Kronologia

**2007ko uztaila**  
Zalloventak ustiapen eremua handitzeko Eusko Jaurlaritzak emandako kontzesioa atzera bota zuten auzitegiek

**2009ko apirila**  
Urkiolako Parke Naturaleko Patronatoak araudi berria sortzea onartu zuen; harrobien hedapena mugatuko luke

**2010eko otsaila**  
Urkiolan erazketa jarduerak debekatu zituen Eusko Jaurlaritzak

**2010eko maiatza**  
Zalloventaren zabalkundeari ezezkoa eman zion Jaurlaritzak

**2010eko ekaina**  
Auzitegi Gorenak Mañariako bizilagunen aldeko epaia eman zuen

**2010eko uztaila**  
Zalloventa harrobia ixteko aginduz Eusko Jaurlaritzak

**2011ko urria**  
"Ondarean eragindako kalteengatik" 9,2 milioi euroko kalte ordaina ordaindu beharko dio Jaurlaritzak Zalloventari

IZURTZA

# Autobus geltokiak amaituta egongo dira aste hasieran

Udalaren materialagaz egin dituzte markesinak



Beharginak lanean, martitzenean, autobus geltoki berrian.

Datorren aste hasieran autobusek Izurtzako geltoki berri biak estreinatuko dituzte. Beharbada astelehenean bertan, udal ordezkarien esanetan. 2013an Bizkaibusek autobus zerbitzua Mañariara arte zabaltzeko asmoa duenez, Izurtzako Udalak geltokietako markesinak ipintzeko diru-laguntza eskatu zion garraio enpresari. Erantzuna, dirurik ez dagoela. Ondorioz, udalak egin ditu markesinak, almazenean zitutzen banku luze bi hartu eta horiei poliuretanozko egitura gehituta.

Lanak atzeratu egin dira, semaforoen programazio kaxa bategatik. Kaxa tokiz aldatu behar zuen Aldundiak, baina kableak luzatzeko hiru aste eman dituzte. Handik hurbil semaforo berri bat ipini zuen arinago Aldundiak, eta udalak aurreikuspen falta kritikatu dio, geltoki berriko aldaketak orduan ez egin izanagatik. ■ J.D.

ATXONDO

# Munduko kultura anitzen erakustoki izango da Apata

Ahalik eta kultura gehienetako materiala biltzen ari dira kulturarteko jaialdiaren II. ediziorako

Urriaren 27an, kulturarteko jaialdiaren bigarren aldia egingo dute. Aurten ere munduko kultura anitzen bilgune bihurtuko da Apata eta kultura horiek ezagutara emateko ekintza sorta prestatzen ari dira hainbat herritarren ekimenez.

Esaterako, aurten munduko kulturen gaineko erakusketa egin gura dute. Horretarako ahalik kultura gehienetako erakusgarri izango den materiala batzen ari dira: arropak, osagarriak, janaria prestatzeko tresnak, musika instrumentuak... Antolatzaileek erakusketa osatzen laguntzeko deia

egin dute. Eguenero, 18:00etan, batzarrak egin dituzte udaletxe-ko pleno aretoan eta orduan jaso ahal dute materiala.

Iaz legez, dantzak, musika eta janaria ere jaialdiko protagonistak izango dira. Durangoko senegaldar talde bat ariko da batukada soinuak zabaltzen, eta baita Soralezko talde bat ere Portugalgo fadoak kantatzen.

Horrez gainera, denen artean mandala bat egin gura dute, gero herrian erakusteko. Mandala oihaltu handi bat da, pieza edo sinbolo txikiagoekin osatua. ■ J.D.

Soluzioak  
zure esku

BOZKATU

ehbildu

## Durungaldean labor

### Garaje-partzelen inguruko galdeketa Abadiñon

Matienako garaje-partzelek izan dezaketen arrakastaren inguruko galdeketa jarri du abian Abadiñoko Udalak. Interesa dutenek izena eman ahal dute jada udaletxean. Izen-emateak eskaerak neurtuko ditu soilik, ez da garaje-partzelarik esleituko. Alkateak esan duenez, interesa egotekotan soilik egingo baita garajea. Duela urte bete ere egin zen beste azterketa bat eta 300 bat interesatu agertu ziren.

### Elorrioren euskara gehiago erabiltzeko, ideien bilketa

Elorriaren % 59 elebiduna izan arren, kalean hamar elkarrizketatik hirutan erabiltzen da euskara. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berbidatzeko batzar irekiak hasi dituzte Elorrioren, eta diagnosia egin eta gero, datorren eguaztenean, urriaren 10ean, euskararen egoera hobetzeko ideia eta proposamenak batuko dituzte, Iturri kultur etxean, 18:30etik aurrera.

### Etxebizitzaren zozketan izena eman ahal da

Durango Faustegoienan kooperatiba-erregimenean eraikiko diren 116 etxebizitzaren zozketan izena emateko epea zabalik dago urriaren batek. Durango Eraikitzen erakundearen egoitzan eman behar da izena eta azaroaren 30a izango da horretarako azken eguna.

### Astaldiko hezitzaile ikastaroa eratu dute

Astaldiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak antolatu ditu Mankomunitateko Euskara zerbitzuak. Urtxin-txa Eskola arduratuko da prestakuntzaz. Euskaraz izango da eta, eskualdeko gazteentzat, doakoa. Urriaren 11n bukatuko da matrikulazio epea eta 40 gazterentzako lekua dago.

#### ABADIÑO

## Aukera Azoka lehen aldiz Matienan ipiniko dute, asteburuan

Stock eskaintza zabala eta "prezio oso baxuak" egongo direla ziurtatu dute +Dendak elkartekoek

Ume eta gazteentzako zein kirolerako arropa, zapa-tak, dekorazioko salgaiak eta abar luze bat aurkituko ditu asteburuan Traña-Matienako Aukera Azokara gerturatzen denak. Bihar eta etzi, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da azoka zabalik, frontoian.

Lehenengo aldia da honelako azoka bat antolatzen dutena Abadiñon, eta Durungaldeko zortzi dendak eskainiko dituzte euren salgaiak prezio berezietan: Acuatika Sport, Caribú, Chiloé, Cien Pies, Etxedreams, Nk, Susi eta Sylke dendek ipiniko dituzte standak.

"Denboraldia penagarria izan da, gure dendek ez dute nahikoa saldu, eta stock itzela pilatu dute", dio +Dendak elkarteko Santi Reyesek. Biltegietan daukatena saltzeko beharrak bultzatuta antolatu dute Aukera Azoka hau. "Eskaintza zabala" egingo dute bertan, eta "prezio benetan baxuak" topatuko ditu bertaraten denak.

Durungaldeko Dendarien elkarteak eta Abadiñoko Udalak antolatu dute azoka. Honelako ekimenekin, "herriko denda txikiei ahal den neurrian laguntzeko" borondatea agertu du Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.



+Dendak elkarteko eta Abadiñoko Udalaren ordezkariak.

### Matienako Haurreskola 30 umegaz inauguratu dute

Urte bi arteko 30 umek astelehenean estreinatu zuten Abadiñoko Traña-Matienako auzoko haurreskola berria. Lau ikasgelaz osatutako eraikin berriak, 400 metro koadro ditu eta 42 umerentzako lekua dauka.

Uda sasoiaren aprobetxatu dute haurreskola berria egiteko. Egoian enpresari esleitu zizkioten lanak. Guztira, 496.806 euro inbertitu dituzte haurreskolako eraikinean. Inaugurazio ekitaldia joan zen barikuan egin zuten eta bertan egon ziren Abadiñoko alkate Jose Luis Navarro, Bilduko zinegotzi Aitor Azueta eta EAJko Eneko Etxebarria. Eusko Jaur-laritzaren Hezkuntza saileko ordezkariak ere bertaratu ziren ekitaldira. ■ A.B.

## Jazarpen poliziala gaitzetsi du Ezker Abertzaleak

Motxioa egoitzara paper eta lanerako material bila sartu direla diote, lapurketen itxurak eginez

Azken hilabeteetan, "ustezko lapurrak" Traña-Matienako Ezker Abertzalearen Motxioa egoitzan birritan sartu direla gaitzetsi du Abadiñoko Ezker Abertzaleak. "Dena hankaz gora jarri zuten eta papez josiak zeuden armairuak astindu zituzten", esan dute.

Dirua barik, Ezker Abertzaleak lanerako erabilzen duen materiala izan da, ohar baten bidez salatu dutenez, Motxioan sartu diren "ustezko lapurren" helburua.

Durungaldean "indar polizialean mehatxua" handia dela azpimarratu dute: "Militanteak lan politiko eta sozialetik aldentzeko helburuz dihardu Espainiako Poliziak". Ezker Abertzaleak duela hiru urte hartutako bideari Espainiako Gobernuak jarri gura dizkion traba eta oztopoekin lotu dituzte gertakariok.

"Jasaten ari garen errepresioa eta jazarpena" gaitzesteko, konzentrazioa burutu dute. ■ A.B./I.E.

## Erresistentzia psikologikoa lantzen hasi dira 15 emakume

Asteon hasi da emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa bultzatzeko asmoa daukan ikastaroa. Hamabost lagunek taldea osatu dute, eta Eskarne Larrinagak gidatzen ditu saioak. "Bizi dugun egoera ekonomiko eta sozial latzean,

emakume asko dago antsietateak eta depresioak jota, eta horri aurre egiteko erresistentzia psikologikoa landuko dugu, besteak beste, saioetan", dio Larrinagak.

Gaitasun emozionala eta pertsonala landuko dute Eragin elkarteak antolatutako ikastaro horretan, eta norberaren indargune eta ahulguneak identifikatzeko metodoa ere landuko dute: eneagrama.

Parte hartzeko interesa duten emakumeei deia zabaldu diete: [eskar.larri@gmail.com](mailto:eskar.larri@gmail.com) helbidean eman daiteke izena. ■ I.E.

#### MALLABIA

## Lanpostuak sortzea sustatu guran enplegu plana egingo dute

Mallabiko eta Ermuko diagnosia egin eta gero ekintza plana zehaztuko dutela dio udalak

Eusko Jaur-laritzak 2012ko maiatzaren 9ko Aginduan Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatze laguntzetarako deialdia zabaldu zuen. Ekaineko osoko bilkuran udalak aho batez onartu zuen Mallabiak Ermuarekin batera Enplegu Plana martxan jartzea.

### Ekaineko osoko bilkuran aho batez onartu zuten Mallabiak Ermuarekin batera Enplegu plana martxan jartzea

Mila Mondragon alkateak lan merkatuan planak dituen helburuak azaldu ditu: "Egitasmo honen bidez, enplegua sustatzea eta enpleguaren tokiko garapena lortu nahi duten ekintzak eta programa bereziak sortu gura ditugu. Lan-merkatuan izandako aldaketek eragindako desorekak gainditzea da asmoa".

Enplegu Planak hiru ardatz nagusi izango ditu. Lehenengo, herriko eta inguruko lan-merkatua eta egoera sozio-ekonomikoaren diagnosia egingo dute. Bigarrenik, plana osatzeko estrategiak zehaztuko dituzte, langabezian dauden herritarrek beharra bilatzera bideratzeko. Azkenik, Ekintza Plana osatzeko lortu nahi diren emaitzak adieraziko dituzte.

Egitasmoa osatzeko partaidetza foroa edo lantaldea osatuko dute, agente publikoen eta pribatuen partaidetzarekin, eta ekintzak proposatzeko eta planaren barruan proiektuak sortzeko gaitasuna izango dute. ■ J.G.

### Egitasmoa osatzeko partaidetza foroa edo lantaldea osatuko dute

#### ZALDIBAR

## Beste herrietako igerilekuetara jo dutenek laguntza jaso ahalko dute

Herrian igerileku batentzako azpiegiturarik ez dagoenez, 2012 urtean Abadiño, Berriz, Eibar, Elorrio, Ermua eta Durango kiroldetako igerilekuak erabiltzen dituztenen herritarrei zuzenduriko diru-laguntza eskainiko du Zaldibarko Udalak.

### Abadiño, Berriz, Eibar, Elorrio, Ermua eta Durangora joaten direnentzako da diru-laguntza

Diru-laguntza jasotzeko, honako dokumentuak aurkeztu behar dira, udaletxean: Durungaldeko aipatu herri horietako igerilekua erabili izana frogatzen duten ordainagiriak, NAN-aren fotokopia, eta eskabide orria. Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke eskabideak. ■ I.E.

### Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke diru-laguntza jasotzeko eskabideak

@anbotokultura

# KULTURA<sup>></sup>

NESTOR BASTERRETxea > ARTISTA



Txelu Angoitia

## “Denboran iraun dezaten eginiko obrak dira euskaldunarenak”

Nestor Basterretxea artista bermeotarrari eskatu dio Gerediaga elkarteak aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokaren kartela egitea; San Agustin kulturguneko aurkezpenaren ostean erantzun ditu galderak

**Zein izan da kartelaren sorkuntzan buruan erabili duzun ideia?**  
Erabili dudana da, gure herriko sorkuntzaren azken lanak ezaugaraztea helburu duen azokan, gaur eguna eta etorkizuna daudela presente. Azken aldian lantzen ari naizen teknika baliatzea pentsatu dut. Dagoeneko erabiltzen nabilen teknika da, baina gehiago sakontzea gura dut.

**Zenbat denbora daramazu teknika hori lantzen?**  
Sei bat hilebete eman ditut horrela lan egiten. Telebista matxuratzen denean pantailako koloreei argazkiak egiten dizkiet. Izan ere, kolore aberastasun ikaragarria dago horretan. Argazkia handitu eta collage bat egiten dut, koloreak espazio geometrikoetan sartzen ditut ondoren.

“Telebista matxuratzen denean pantailako koloreei argazkiak egiten dizkiet”

**Lehenago ere sortu izan duzu kartel bat baino gehiago.**  
Bai, baina aurretik egin izan ditudan kartel horietan teknika ez zen bereziki berritzailea: collage-a edo marrazkia erabiltzen nuen. Euskal antzerki taldeen, liburuaren eta diskoaren azalerako ilustrazioak egin izan ditut. Azkena, Bedaxagar kantariaren diskoaren azala da. Asko miresten ditut poeta herrikoiak.

**Kasu honetan teknika bera gehiago lantzeko aukera izan duzu?**  
Bai, eta horregatik izan da niretzat berritzailea. Estetika bereko dozentza bat lan egin dut eta gehien gustatu zaidana aukeratu.

**Esan duzunez, urteak dira Durangoko Azokan egon zirela.**  
Bai, bi aldiz egon naiz, eta benetan harritu ninduen azokaren dimentsioak: jende kopurua, jendeak azokarekiko duen lotura... Horrek guztiak asko harritu eta poztu ninduen. Ez nuen sekula pentsatu egunen batean azokako kartela egingo nuenik eta, horregatik, benetan ohorea da.

**Zure bizitzako lanari buruzko erakusketa antologikoa prestatzen ari zara. Lanpetuta?**

Bai, horretan dihardut, Bilboko Arte Ederren Museoan erakusketa antologiko bat prestatzen. Peio Agirre izeneko komisarioagaz nabillanean. Poz-pozik nago bere izaera emango diolako erakusketari. Zaila da ukitu ditudan arlo guztiak jaso gura ditugulako: zinema, eskultura, margogintza, altzairuak... Arkitektoa izan nahi nuen, baina Gerra Zibilak eta Mundu Gerrak ezinezko egin zidaten. Nire arloan gizon kultua izatea nahi izan dut beti, eta horregatik jardun nuen arlo horietan guztietan.

**Bizitza osoa eman duzu sortzen.**  
Beti jardun dut lana seriotasun eta interesez handiagaz egiten. Arin-erriaren, fribolitatearen etsaia naiz. Jarrera serioa da euskalduna, denboran iraun dezaten eginiko obrak dira euskaldunarenak, lekuko izateko eginikoak. Gure sorburua egitura arkitektoniko irmoa dela pentsatzen dut. ■ I.E.

### Kartel modernoa, teknika berriagaz



T.Angoitia

Nestor Basterretxea, bost hamarkadatan artearen adierazpide anitzak jorratu dituen artista, eta Aiert Goenaga Durangoko Azokaren zuzendaria egon dira 2012ko Durangoko Liburu eta Disko Azokaren kartelaren aurkezpenean. Martitzenean erakutsi zuten, lehenengoz, Azoka iragarriko duen kartela.

Basterretxeak azaldu duenez, telebista pantaila matxuratzen denean agertzen den “kolore aberastasun ikaragarria” da karteleko irudiaren oinarria. Azken aldian pantailako forma eta kolore horietan oinarrituta dihardu bere collage erako lanak egiten.

Gerediagaen proposamena kartel moderno bat teknika berri batez egiteko aukera legez ikusi zuen Basterretxeak, azaldu duenez. Antolatzaileen lana nabarmendu du artistak: “Bihotzez, azoka antolatzeko egiten duzuen lana eskertzea baino ez dagokit”.

Bastoiagaz eskuartean, berba bakoitzatza patxadaz, lasaitasunez pentsatu eta ahoskatuta egin du Basterretxeak berba. Oteiza aipatu du, eta euskal nortasunari buruzko adierazpenak ere egin ditu. “88 urte dauzkat, eta heriotzan pentsatzen dut. Baina borrokatzen jarraituko duzuela jakinda noa beste mundura. Eskerrik asko”.

#### Egun bat gutxiago

Aiert Goenagak azaldu duenez, azken urteetako kartel lehiaketa alboratu eta Durangoko azokaren kartela artista bati enkargatu gura izan diote aurtengoa.

Bestalde, iaz baino egun bat gutxiago iraungo du Durangoko azokak, lau, abenduaren 6tik 9ra. Aurrekontua aipatu du zuzendariak: “Krisi ekonomikoak guri ere eragin digu, eta ezin dugu bost eguneko azoka baten aldeko apustua, egin kalitatean galduko guelako”.

BERTSOAK > AURKEZPENA

# Plateruenean egin dute Bizkaiko bertsolari txapelketaren aurkezpen jaia

Durango Plateruenean batu ziren eguazten iluntzean Bizkaiko bertsolari txapelketan parte hartuko dutenak

**D**urango Plateruenean eguazten iluntzean egin zuten jaian batu ziren Bizkaiko Bertsolari txapelketaren inguruan lanean dabilen hainbat lagun, eta txapelketan kantatuko duten bertsolariak. Goizean Bilboko prentsaurrekoan aurkeztu zuten txapelketa.

Txapelketaren sintonia eta bideoklipa aurkeztu zituzten, besteak beste, Plateruenean. Gernikako Audience taldeak egin ditu. Joseba Santxok sortu du, bestalde, txapelketaren *BaDaGaRa* lema, eta bere ahotik kantatuta eta erreztatuta entzun zuten Plateruenean batu ziren bertsolari eta bertsolazaleek. Durangaldeko hiru belaunaldietako bertsolariak kantatu zuten, gainera, Platerueneko aurkezpen horretan.

Bost kanporaketa eta hiru finalurreko jokatu dituzte abenduko finalaren aurretik

Domekan, Berriatuan jokatu dute Iratxe Ibarra, Arrate Illaro, Imanol Uribe, Xabier Enbeita, Jone Larrinaga eta Inazio Vidalek txapelketaren lehenengo kanporaketa, eta Durango jokatu dute bigarren finalurrekoa. Azaroaren 25ean.

Bost kanporaketa eta hiru finalurreko jokatu dituzte asteburu honetan hasi eta abendura arte Bizkaiko Bertsolari txapelketan. Kanporaketetako irabazleek ziurtatuta edukiko dute finalurrekoetarako pasea,



eta gainontzekoak puntuazioaren arabera igaroko dira. Txapelketaren finala, Bilboko Miribillan egingo dute, BECen beharrean. Abenduaren 15ean.

Bizkaiko 38 bertsolari kantatuko dute txapelketa honetan, eta Durangaldeko zortzi bertsolari ere sartu dira lehian. Udaberriko eskualdeetako kanporaketan Durangaldeko txapela jantzi zuelako udazkeneko saioretan jarduteko aukera irabazi zuen Gorka Lazkano berriztarrak.

Lazkanogaz batera, Durangaldeko beste zazpi bertsolari ere kantatuko dute kanporaketetan; 2010ean finalista izan zirelako, Eneko Abasolo *Abarkas*, Beñat Ugarte-txea eta Miren Amuriza ere ariko dira.

Azaroaren 25ean, Durango jokatu dute txapelketaren bigarren finalurrekoa

Aurtengo eskualdeetako txapelketan lortutako puntuazioaren arabera lortu dute Bizkaiko txapelketan jarduteko txartela, bestalde, Garikoitz Sarriugartek, Eñaut Uruburuk, eta Ander Salaberriak, eta txapelketa hau bost biderrez irabazi duen Igor Elortza durangarrak ere hartuko du parte.

Txapelketako saioretarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) helbidean salgai daude dagoeneko. ■ I.E.



## GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz  
Berbaroko  
kidea



## Agian

Beti egin zait gogorra ikasturte hasiera, badago-eta aztoratuta ibiltzeko motiborik. Postontziak gainezka, txapazkoa zein elektronikoa.

*Berria* hartu eta Egon Schiele margolarien artelana ikusi dut azalean. Biluzik ageri da gizonaren gorputz ikaragarri meharra. Artistaren obra XX. mendeko lehen hamarkadan hondoratzen hasitako Austriako gizartearen erakusgarria ei da. Buruari atsedetik ez, eta itolarria eragin dit pentsamendu kaotikoak; sasoiako paranoiak?

Duela urte batzuk euskara saltzeko teknikak ikasi genituen, produktu bat balitz bezala aurkeztu behar baitzitaion 'bezeroari', euskarara hurreratzen zen orori, balizko erosleari. Inportantea zen hizkuntzak duen balio erantsia erakustea eta, marketin teknikak erabiliz, produktua erakargarri aurkeztea. Merkatuan sartu genuen hizkuntza. Esloganak eta diseinu dotoreak sortzen hasi ginen, atsegin egiten, gozamenarekin lotzen...

Nago, energia asko xahutzeaz gain, agian, merkataritza huts bilakatu ginela, ahaztu egin zitzaigula euskara ideologia bat dela, bizitzeko modu bat dakarrela, eta produktu soil moduan aurkezteak zenbait arrisku dituela haren beharrik sentitzen ez bada. Eta beharrik dagoenean, ostera, soberan daude eslogan, kanpaina eta abarrekoak.

Atzera itobeharra, berriro etorri baitzait gizon gorputz desitxuratuaren irudia. Eman didaten pegatinak lagundu dit atakatik irteten: Guka eta "euskaraz, lehenengo pertsona, pluralean" ikus daiteke idatzita. Euskaltegiek matrikulazio kanpainetan erabilitakoen antzeko eslogana dela begitandu zait. Zer den azaldu didate. Harremanak euskaraz izan gura ditugun pertsona izendunak garelako beste edozeren gainetik. Eta bizitzeko modu horretara batzeko gonbita jaso dut.

Esloganak eslogan, *Gu* eta *Ka* elkar-ketari iradokitzailea deritzot. Modua adierazten du atzizkiak, banatzailea ere bada eta, bitxikeria moduan, Egiptoko mitologian *Ka* bizi indarra da, giza izpirituaren osagai bat, bizitzaren printzipio unibertsal eta hilezkorren zatitxo bat. Euskaldunon izaeraren osagaietako bat?

## DATUAK

38 bertsolari parte hartuko dute

Durangaldekoak, zortzi bertsolari

Lehenengo kanporaketa, domekan, Berriatuako frontoian

Bigarren finalurrekoa, azaroaren 25ean, Durango Landakogunean

Finala, abenduaren 15ean, Bilboko Miribillan

Sarrerak, webgunean salgai: [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu)

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

Sotaguren kalea 3  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
E-mail: [urtiaga.siv@terra.es](mailto:urtiaga.siv@terra.es)  
MATIENA  
ABADINO

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Goiuria auzoa 16 - 48215 lurreta (Bizkaia) Tel.: 94 681 08 86

**www.asadorgoiuria.com**

GOIURIA  
JATEXEA  
ERRETEGIA

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK  
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK ...

katerin ardoak  
iñaki uribe

**saltzan**

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 [saltzan.com](http://saltzan.com)

2 pertsonarentzako  
MENUAK  
zozkatuko ditugu

Bidali zure datuak:  
[anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) edo  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta



HISTORIA > ZIKLOA

# Gotiko berantiarra izango da Ondare jardunaldietako ardatza

Durangaldeko zortzi herritan antolatu dituzte eskualdeko historia ezagutarazteko ekintzak

**Berriz.** Urriaren 27an, bisita gidatua, Ereña jatetxetik: *Andikoako santutegia, landa inguruko aldaketen lekuko.*  
**Durango.** Urriaren 6, 13, 20 eta 27an, Turismo bulegoan: *Durango XV. mendean bisita gidatua.*  
**Elorrio.** Urriaren 12, 14, 21 eta 28an, plazan: *Elorrio harresietatik haratago.*  
**Garai.** Urriaren 20an, elizan, berbaldia: *Euskal janzkera historian zehar.* Erakusketa: *Erdi Aroko kapeluak, osagarri bat baino gehiago.*  
**Iurreta.** urriaren 21ean, berbaldia: *Lihoa eta euskal emakumea.*  
**Mañaria.** Urriaren 20an, berbaldia: *Euskal emakumeak Erdi Aroan.* Urriaren 20an, bisita gidatua: *Landa bizitza Erdi Aroan.*  
**Otxandio.** Urriaren 14an, bisita gidatua, plazatik: *Burdinolen hiribildua.*  
**Zaldibar.** Urriaren 6an, berbaldia: *Zaldibartarrak, bandokideak ogibidez.*

Gotiko garaiaren amaierako urteetako gizarte, XV. mendeko Gotiko Berantiarra, izango da gai nagusia aurtengo Ondarearen Europako jardunaldietan. Foruekin, mugarrekin, sorginekin eta here-

Gerediaga elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak koordinatu dute zikloa

siagaz lotzen dugun garai historiko hori. Gai horiei buruzko bisitaldi gidatuak, berbaldiak edota erakusketak eskainiko dituzte.

Gerediaga elkarteak eta Urkiola Landa Garapenerako elkarteak koordinatuko dute jardunaldia, eta Durangaldeko zortzi herriko parte hartuko dute aurtengo edizioan. Hainbat ekintza izango dira Berrizen, Durangon, Elorrioren, Garain, Iurretan, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren.

Besteak beste, esaterako, *Andikoako santutegia, landa ingu-*

*ruko aldaketen lekuko* bisita gidatua eskainiko dute, urriaren 27an. Berrizko Ereña jatetxean egin dute bisitaldi horretarako hitzordua.

Urriko lau egunetan, bestalde, *Elorrio harresietatik haratago* bisita gidatua aterako da Elorrioko Herriko plazatik. Goizean bisitaldi hori egin, eta arratsaldean Argiñetako indusketetara egingo duten bisitaldira hurreratzeko gonbitea egin die Elorrioko Udalak herritar guztiei. Baina bihar izango da jardunaldien lehenengo hitzordua, Durangon, *Durango XV. mendean* izeneko bisita gidatuagaz.

Bihar izango da jardunaldien lehenengo hitzordua, Durangon

Durangaldeko ondare historiko eta artistikoa hurretik ezagutzeko, bisitaldi gidatuak ezezik, bestelako ekintzak ere eskainiko ditu programazio zabalak. Erakusketak eta adituen berbaldiak ere jasotzen ditu egitarauak. Esaterako, Erdi Aroko emakume euskaldunei buruz jardungo du Toti Martínez de Lezea idazleak, Mañarian; janzkeriei buruz Amaia Mujikak, Garain; eta bandoei buruz Juanjo Hidalgok, Zaldibarren.

Bizkaia osoan, guztira, doa-ko ehun ekitaldi baino gehiago eskainiko dute jardunaldiek. ■ I.E.



MUSIKA > TAILERRAK



## Publiko zabalarentzako solasaldiak eta perkusio tailerra musika eskolan

“Aisialdian musikara gerturatzeko interesa daukatenei” zuzenduriko eskaintza luzatu dute

Urriaren hasiko dituzte Durangoko Musika Eskolak antolatzen dituen tailer bi. Tailerrak emango dituzten irakasleek eman zuten eguaztanean, informazio guztia.

Ana Celia Ormaetxea piano irakasleak azken hamabost urteetan eskaini dituen *Solasaldi musikalak* gidatuko ditu. “Musikaren alderdi ludikoan indarra egingo dugu hiru monografikoetan”, esan du Ormaetxeak, “eta parte hartze-ko ez da ezagutza musikalik behar”.

Independenteak diren hiru monografiko eskainiko dituzte Musika eskolan: urriaren hasiko dute lehenengoa, eta Mozarten musika eta bizitza hartuko dute ardatz. Bigarren monografikoan, operaren historiari buruz jardungo dute. Udaberrikoan, Chopin edo Liszt lako pianista erromantikoak izango dira protagonista. Hamar saiokoa izango da monografiko bakoitza eta Kurutzesan-tu museoa batuko dira.

**Venezuelako teknikak**

“Musika Eskola ez da umea esku-tik helduta ekarri eta bertan uzte-ko lekua bakarrik”, esan du Lerman David Nieves irakasleak, “publiko guztiari zabalik egon behar duen lekua da”. Bere jaioterrian, Venezuelan, ikasitako perkusio teknikak irakatsiko dizkie Nievesek bere tailerrean parte hartuko dutenei.

Musika eskolan eman daiteke izena, urriaren 15era arte. ■ I.E.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

URRIAK 5 22:00etan  
**NON SERVIUM+**  
 SHOCK WAVES  
 KONTZERTUA. Sarrera: 10-13euro.

URRIAK 6 22:00etan  
**LOS CHICHOS**  
 KONTZERTUA. Sarrera: 15-18euro.

URRIAK 12 23:00etan  
**GAU ELEKTRONIKOA & FRIENDS**  
 MUSIKA. Sarrera: 6-7,5euro.

Gau Elektronikoa

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

www.plateruena.net

**PRINTZEA ETA AHATEA**

**Gorakada Antzerki Taldea**

Urriak 7 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA  
 DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
 liburu-denda

artekalea 14,  
 durango (bizkaia)  
 info@hitliburudenda.com  
 946 810 776

## BERBAZ &gt;

# “Emozio egokiekin hezi ezean, egoera gaitzek gainezka egiten digute”

Teresa Alonso psikologoak ‘Inteligentzia emozionala emakumeengan’ ikastaroa hasiko du urriaren 15ean



**Teresa Alonso Etxebarri**

- Psikologoa da
- Bilbotarra, 50 urte dauzka

“Akatsak onartu eta detektatu behar ditugu, gero aldatzeko”

**H**aserrea, tristura, maitasuna, beldurra... Noiz sortzen dira, eta zer eragin dute norbanakoarengan? Kasu askotan blokeo egoerak eragiten dituzte emozioek. Teresa Alonso Etxebarri emozio horiek kudeatzen ikasteko ikastaroa eskainiko du udazkenean, lurretan, emakumeentzako, Anderebide elkarteak antolatuta.

*Zergatik dago adimen emozionala landu beharra?*

Askotan emozioek gainezka egiten digute, eta gure logika eta arrazoimena blokeatu egiten dira. Egoera horretan egokiak ez diren ekintza batzuk egin ditza-kegu, inteligentzia desagertu egiten dela ematen du. Duela gutxira arte garrantzia eman zaio koefiziente intelektualari, eta pentsatzen zen koefiziente altua zutenek bizitzan arrakasta gehien zutela. Ez dauka zerikusirik. Koefiziente altua eduki arren, zailtasunen aurrean blokeatu zaitezke eta gatazkak konpontzeko gaitasuna ez daukazu zertan eduki. Bizitzako zailtasu-

nen aurrean emozioak kudeatzen jakitea da kontua, emozioek eurek zailtasunak konpontzen laguntzeko. Maitasunagaz, haserreagaz, beldurragaz... Hori gertatuko da. Haserrearen kasuan, adibidez, gure jendar-teak kontrako egoeretan haser-rrera bultzatzen ditu pertsona asko, eta horrek gatazka gehiago baino ez du sortzen.

*Zer arrazoigatik ez dira gaitasun horiek behar beste garatzen?*

Emozioekin jaio egiten gara, eta gero familian eta jendartearen emozioak bideratzeko ereduak ikasten ditugu. Familia batzuek emozioak eta gatazkak oso ondo maneiatzen dituzte, eta beste batzuek ez. Gizarte gaitasunak ikasi egiten dira. Ume batek etxean haserrearen bidez dena

“Koefiziente altua eduki arren, gatazkak konpontzeko gaitasuna ez daukazu zertan eduki”

konpontzen dela ikusten badu, pentsatuko du haserreak beti balioko duela; baina familian negoziazioaren bidea hartzen dela ikusten badu, hori ikasiko du. Irabazi eta galtzen jakitea, autoestimua, horrek guztiak batez ere etxean ikasten dira, eta eskolan ere bai.

*Norberaren sentimentuak ezagutzen jakitea da lehenengo pausua?*

Gure emozioak maneiatzen jakin behar dugu besteak ezagutzeko. Barne *ni*-a ezagutzen duenarentzako besteekin konektatzea errazagoa da.

*Emozioak ezagutzetik aldatzerako pausua*

Hartuemanetan harmonia egiteko bi aldeen partetik aldaketarako gogoia egon behar da. “Erratu egin naiz”, onartzea komeni da. “Badakizu zelakoa naizen”, edo “horrelakoa naiz eta ez naiz aldatuko” esaten duten pertsonekin ez dago zereginik. Gure akatsak onartu eta detektatu behar ditugu, gero aldatzeko. Beste gaitasun oso garrantzitsu bat enpatia da. Bestearen egoera zelakoa den ulertu eta negoziatzen ahalegintzeko ezinbestekoa

da. Norbera bere buruagaz harmonian egonda errazagoa da besteekin harmonian egotea. Horrek ez du esan nahi Nirvanan zaudenik. Gatazkak edukiko dituzu, eta hobeto konpontzen jakingo duzu. Gatazka batzuek ez dute konponbiderik izango, eta horiek ere onartu beharko dituzu.

“Barne *ni*-a ezagutzen duenarentzako besteekin konektatzea errazagoa da”

*Ez da nahikoa izango sentitzen duzuna beste barik komunikatzea...*

Oso garrantzitsua da emozioak arrazionalizatzen jakitea, gure alde logikoa eta emozionalaren arteko hartueman lantzea. Batzuetan pertsonak badakite pentsatzen dutena ez dela arrazionala, baina ezin dute hori pentsatzeari utzi. Ez diezu laguntzen esanda “pentsatzen

duzuna ez da logikoa”. Jarrera aldatzen ikasi beharko dute. Horretan, adibidez, lagundu egiten dute arnasketa sakonak, erlaxatzen jakiteak... Horrela, aldaketa kimikoak sortzen dira, eta horiek eragin zuzena dute gure emozioetan. Gauzak lasai hartzen ikasi behar dugu.

*Emakumeen inteligentzia emozionala landuko duzue Iurretako ikastaroan. Genero aldetik desberdintasunak nabari dituzue?*

Gurasoen elkarrekin eman izan dit ikastaroa, eta bai, ikusi ditut desberdintasunak. Emakumeoi batzuetan gehiago egiten digute emozioek gainezka. Gizon batzuei ere bai, eta blokeatzen dira. Agian emakumeoi gehiago hezi gaituzte emozioen adierazpenean, eta gizonei arrazionalizazioan eta autokontrollean. Bi kasuetan sortzen dira blokeoak. Emozio egoki batzuekin hezten bagaituzte inteligentzia emozionala hobeto garatzen da. Horrela ez bada, egoerak gaintu egiten gaitu. Bizitzan zailtasun asko daude, eta horiek hobeto eramateko jarrera aldatu beharra daukagu hainbatetan. Horretarako, pentsatzeko era aldatu behar dugu, emozioak aldatzeko. Emozioak aske utzita, deskontrolatu eta ekintza ez egokietara eroan zaitzakete. ■ A.Ugalde.

# SAN FAUSTO JAIAK 2012 DURANGO

URRIAREN 12tik 21era



anboto



Haurdunaldi eta hazkuntzarako  
produktu ekologikoak,  
topagunea eta tailerrak  
Barrenkale 18 behea  
Tel: 94 657 00 87



# Durangoko jai egitaraua

## URRIAK 6, zapatua

•12:00. Euskadiko Andaluzia jardunaldiak Landako Gunean.

## URRIAK 7, domeka

•11:00. Mikologia erakusketa eta lehiaketak, Merkatu plazan.

•11:00. Rocio meza, Landako Gunean. Kontzertua: Vembrule.

## URRIAK 8, astelehena

Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketak.

## URRIAK 11, eguena

•22:00. *The Full Monty*, San Agustin Kultur Gunean.

## URRIAK 12, barikua

•07:30. *Zezenak Dira*.

•10:30. Kalejira, erraldoi eta buruhandiekin. Ezkurditik hasita, Alde Zaharreen zehar.

•11:00. Sugarri Fanfarriagaz, Patxikotxuri ongi etorria Andra Marian; kalejira udaletxeraino.

•12:00. Txupinazoa eta jaietako pregoi ofiziala.

•16:00-20:00. Haur parkea Ezkurdin.

•17:30. Zezen ikuskizuna barraka lekuko zezen plazan.

•19:00. Antzerkia: *Ametsetan bizi*, Santa Anan.

•19:00. Kalejira: Tabira Musika Banda eta Uzartza Txistulari Banda. Gero, kontzertua Andra Marian.

•22:30. Ekialdeko dantzen erakustaldia Andra Marian.

•23:00. Luhartz Ezkurdin.

## URRIAK 13, zapatua. SAN FAUSTO.

•07:30. *Zezenak Dira*.

•10:00. Marmitako txapelketa Landako Gunean.

•11:00. Meza Nagusia San Faustoko elizan.

•11:00. Kalejira txistulariekin.

•11:00-14:00. Circomotik jolasak, Ezkurdin.

•12:00. Paella txapelketaren hasiera San Fausto auzoan.

•12:30. Txalaparta Udaletxe plazan. Ohorezko aureskua eta ohiko artopilen banaketa. Durangoko Dantzariak, Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin dantza taldeak.

•16:30. Poniak San Fauston.

•16:30-19:30. Circomotik jolasak Ezkurdin.

•16:30. Akerbeltz erromeria, Landako Gunean.

•17:30. Zezen ikuskizuna barraka lekuko zezen plazan.

•17:30. Txokolatada eta haurrentzako jolasak San Fauston.

•18:30. Kalejira, M'Lomp taldea, udaletxeko plazatik.

•19:30. *Balkoitik Balkoira*: Unai Iturriaga, Julio Soto eta Onintza Enbeita. Udaletxeko plazan.

•20:00. Easo Abesbatza Andra Mariako Basilikan.

•21:00. Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean.

•21:00-00:00. Indarkeria sexista bako txokoa, txosnen alboan.

•21:00. Suzko zezena Ezkurdin.

•21:30. Alde Zaharreen,

Ghanako Txaranga.

•22:00. Los Sabadeños, Landako Gunean. Sarrera: 10 euro.

•22:30. *Entre Lombrices* kale antzerkia, San Agustinalden.

•23:00. Osiris orkestra Ezkurdin.

## URRIAK 14, domeka. UMEEN EGUNA.

•07:30. *Zezenak Dira*.

•10:00. XXXVIII. Marrazki lehiaketa, San Fausto auzoan.

•10:00-14:00. Haur parkea Ezkurdin.

•10:30-13:00. Txu-txu trenak, Landako Gunean.

•11:00. Kalejira txistulariekin.

•11:00-13:00. Xake txapelketa umeentzat, Andra Marian.

•11:00. Kalejira Arte Biziagaz.

•12:00. Sormen eta musika tailerrak, udaletxe plazan.

•12:30. Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharreen.

•13:00. XII. Durango Hiria margo lehiaketaren sari banaketa. Ezkurdi Udal Aretoa.

•13:30. Txupinazo Txikia eta Pregoia Udaletxeko balkoitik.

•16:30-19:00. Txu-txu trenak, Landako Gunean.

•17:00. Guretzat fanfarrea, pertsona nagusien egoitzetatik.

•17:30. Zezen ikuskizuna barraka lekuko zezen plazan.

•17:30. *Ezagutu Bidegorria*, haur-motorren kontzentrazioa Andra Mariatik Landako Gunean.

•18:30. Txokolatada, Landakon.

•18:30. Haurrentzako Lore Power ikuskizuna, Landakon.

•18:30. Sormen-tailerrak *Semillas Campesinas*, Landakon.

•19:00. Akrobazia eta umorea, Ezkurdin: *Cabaret Elegance*.

•20:00. La Banda Del Soplo, Andra Marian.

•20:00. La Banda Del Soplo, Andra Marian.

## URRIAK 19, barikua

•17:00. Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ezkurdin. Simulazioa 19:30an.

•20:00. Euskal Kantak Plateruena Kafe Antzokian.

•22:30. Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Miren Amuriza, Igor Elortza. Gai jartzailea: Unai Iturriaga.

•23:00. Basaki + Su Ta Gar + Dj Elepunto. Landako gunean.

## URRIAK 20, zapatua. MOZORRO EGUNA.

•07:30. *Zezenak Dira*.

•11:00. Kalejira txistulariekin.

•11:00. Nekazaritza azoka Merkatu Plazaren inguruan jarriko dute.

•11:00-14:00. Skate eskola Zutundu elkarteagaz Ezkurdin.

•11:00. Umeentzako mozorro tailerra, Andra Marian.

•12:00. VIII. San Fausto Grafiti lehiaketa, Ezkurdin.

•12:00. Tikitixak Alde Zaharreen.

•12:00. Kalejira Durangoko Orfeoagaz, Alde Zaharretik.

•13:00. Haurren mozorro desfilera, Andra Marian.

•14:00. Bazkaria hirugarren adinekoentzat Landako Gunean, Trio Marfil taldeak girotua.

•16:00. *Egin Astronomia* tailerrak Zuhatzola parkean.

•16:30. Toricos de la Navarrería. entzierro txikia Santa Anan eta Alde Zaharreen.

•17:30. Zezen ikuskizuna barraka lekuko zezen plazan.

•18:30. Kalejira Alde Zaharretik Sugarri Showegaz.

•19:00. Hipo eta Tomas pailazoak, udaletxeko Plazan.

•20:00. Arte Bizia taldea, Alde Zaharretik.

•20:00. Klasikoen bertsoak Durangaldeko musika taldeen eskutik, Andra Marian.

•21:00. Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean.

•21:00. Indarkeria sexista bako txokoa txosnen alboan.

•21:00. Suzko zezena, Ezkurdin.

•23:00. Gaztea Dance, Landako gunean: Joseba Sakristan eta Oihan Vega.

•23:00. La Jungla orkestra, Ezkurdin.

•23:00. La Jungla orkestra, Ezkurdin.

## URRIAK 21, domeka.

•09:00. XXII. San Fausto Calva Txapelketa Murueta Torre auzunean.

•10:00-14:00. Faunolandia tailerrak, Ezkurdin.

•11:00. Zuhaitz landaketa, Alienalde auzoan.

•11:00. Bizikleta Jaia, bidegorrian. Irteera, Andra Maritik.

•12:00. Poniak, Landakon.

•16:00-19:30. Kondaira Ludoteka: mahai jokoak.

•16:30-19:30. Faunolandia tailerrak, Ezkurdin.

•17:00. Zoo-zoom antzerkia, Santa Anan.

•18:00. Jotak, Andra Marian: *Voces del Ebro*.

•19:30. Kalejira Sama Sikugaz, Patxikotxuri agur esateko.

Udaletxeko plazatik Landako skate pistaraino joango dira.



**OIZ**

M.Z.O ITURGINTZA  
GASA BEROGAILUAK  
ERAIKUNTZA S.L.

Erakusketa-Denda: Plateruen Plaza, z/g • 48200 DURANGO • Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545  
Biltegia: UAI Industriagunea • 2C-48215 IURRETA • Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545

## Txosnetako egitaraua

### URRIAK 11, eguena

- 20:30. Kalejira.
- 21:00. Txupinazoa.
- 22:30. Dirty Brothers + Poliputos + Ghertzainak.

### URRIAK 13, zapatua SAN FAUSTO EGUNA

- 11:00. Paella Txapelketa Txosnetan.
- 14:30. Sari Banaketa.
- 15:00. Bazkaria Txosnetan.
- 17:30. Erreka jaitsiera Tabiran.
- 22:30. Zaparrada + Kruders + Gozo-Gozo.

### URRIAK 19, barikua

- 18:00. Tortilla txapelketa.
- 20:00. Sari Banaketa.
- 22:30. Kilauea + Las Culebras + Nuevo Catecismo Catolico.

### URRIAK 12, barikua

- 12:00. Udaletxeko txupinazoa.
- 12:30. Okelaz eginiko burduntzi pintxoak Andra Marian.
- 17:00. Kirol herrikoiak Txosnetan.
- 20:00. Debako Elektrotzaranga.
- 22:30. Piara + Raperos de Emaus + Los Chicos del Maiz.

### URRIAK 14, domeka

- 16:30. Umeentzako Pailazoak.
- 18:00. Naica + Johnny & Joseph.

### URRIAK 20, zapatua GAZTE + MOZORRO EGUNA

- 13:00. Gazte poteo animatua.
- 15:00. Gazte bazkaria.
- 17:00. Kuadrilen arteko olinpiadak.
- 20:00. Desfilea eta sari banaketa Txosnetan. Ostein, Elektrotzaranga, Alde Zaharretik.
- 22:30. Afu + Luhartz.
- 00:00-03:00. Ai Laket! Testing. Txosnagunean.

## Kiroletako egitaraua

### URRIAK 6, zapatua

- 18:00. XXIX. San Fausto Zesta Punta txapelketaren finalderdiak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

### URRIAK 12, barikua

- 17:00. Arte Martzialen erakusketa eta kalejira Alde Zaharretik.
- 17:00. Lehen mailako gizonezkoen saskibaloia partidua, Landako kiroldegian: Tabirako Baqué - Askartza.
- 19:00. Lehen mailako emakumezkoen saskibaloia partidua, Landako Kiroldegian: Tabirako Baqué - Gernika.

### URRIAK 20, zapatua

- 15:00. Errugbi partida, Arripausetan. Espainiako Ohorezko B maila: Durango Rugby Taldea - L'Hospitalet R.C.
- 18:00. XXIX. San Fausto Zesta Punta txapelketaren finalak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

### URRIAK 7, domeka

- XLIV. Durangaldeko gailurrak.
- 10:00. VII Durangoko Duatloi Herrikoia.

### URRIAK 21, domeka

- 10:00-14:00. Futbito txapelketa 3x3 Merkatu Plazan.
- 12:00. I. Padel Txapelketaren finalak, Landako kirolgunean.
- 12:00-14:00. Arku tiroa, Landako gunean.
- 12:30. Herri Kirol erakustaldia Ezkurdin. Euria egiten badu, Landako Gunean.
- 16:00-20:00. 3x3 Futbito txapelketa Merkatu Plazan.

### URRIAK 10, eguaztena

- 19:00. Futbol partidua Tabira Zelaian: Durango kulturala - Bilbao Athleticen kontra.

### URRIAK 13, zapatua

- 10:00. Esku pilota jaialdia, San Fausto pilotalekuan. Mailak: Haur-kategoria A eta B, Kadeteak, Gazte maila, Sub 22 eta Senior.



# NACEX

ondo pasa jaietan!

San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)  
Tel.: 94 620 01 62  
Mug.: 666 444 101  
4810.operativa@nacex.es  
[www.nacex.es](http://www.nacex.es)

Informazio orokorra: 900 100 000

## altzariak gandarias

### Etxerako dekorazioa

Ermodo kalea, 13-25  
Tel.: 94 620 26 64  
DURANGO

Arkotxa kalea, 8  
Tel.: 94 681 07 22  
DURANGO

# Batera dantzan eta txupina pizten

Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin dantza taldeek botako dute aurtengo jaiari hasiera emango dien txupinazoa



Onintze Villanueva (Tronperri), Izaskun Aliende eta Leire Renovaes (Txoritxu-Alai), eta Pili Alberdi (Kriskitin).

**A**urten Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin dantza taldeek botatako txupinazoa gaz hasiko dituzte San Fausto jaiak urriaren 12an. Kasualitatez, egun bat geroago, San Fausto Egunean, hiru dantza taldeetako kideekin osatutako talde batek dantza erakustaldia eskainiko du plazan, tradiziozko artopilak banatu ostean. Aurten arte, Kriskitinek bakarrik dantzatzeko zuten egun horretan, baina sarritan lanegunetan dantzariak batzea kostatu egiten zaienez, ikuskizuna hiru taldeen artean eskaintzea proposatu eta adostu zuten.

Aurten hiru txupinera egongo dira: Tronperriko Onintze Villanueva, Txoritxu-Alaiko Leire Renovaes eta Kriskitineko Pili Alberdi. Hiruren artean piztuko dute txupina. Pregoia, aldiz, Izaskun Aliendek irakurriko du, euskaraz. Txoritxu Alai (45 urte ditu) eta Kriskitin (25 urte) taldeak Tronperritik (50 urte) sortu zirenez, dantza talde horretako ordezkari bat aukeratu dute pregoia irakurtzeko dantzari denen izenean. Aliende urte askoan dantza erakusten ibili dela

eta dantzari emaniko laguna dela azpimarratu dute hiru taldeetako ordezkariak. Mezua laburra eta argia izango da: jaietan ondo pasatzeko eta dantza egiteko mezua zabalduko dute.

Txupina bota eta pregoia irakurtzeko ardura pozarren hartu dutela diote, bizitzan behin gertatzen den zerbait delako. Hala ere,

Ohore hori banaka gozatzeko adina nortasun eta historia propio dutela uste dute

hiru dantza taldeek ohore hori banaka eta bakoitzak urte batean gozatzeko adina nortasun eta historia propio dutela uste dute.

**Hasiberrietan neska gehiago**  
Hiru dantza taldeak gaur egun sasoi onean badaude ere, beti kostatzen da erreleboa bermatzea. Gaztetxoek aldetik konpromisoa

lortzeak ematen die lanik handiena. Antolatzen dituzten ikastaroe-tara apuntatzen dira, baina horren ostean askok utzi egiten dute. Bestalde, gaztetxoek artean neskek dira nagusi. Kosta egiten zaie mutilak batzea. Esaterako, hamahiru urtera arteko Kriskitinen taldean mutil bakarra dago. Beste denak neskek dira.

## Inurri Eskaut Taldeak botako du txupinazo txikia

Urriaren 14ko txupinazo txikiari dagokion pregoia Inurri Eskaut Taldeko gaztetxo bik irakurriko dute. Inurriren talderik nagusieneko eta gaztetxoekiko ordezkari bana igoko dira balkoira: 18 eta 11 urte dituzte. Jaietako ekintzetan parte hartzeko gonbita egingo dute gaztetxoek eta Inurriren gaineko azalpenak ere emango dituzte. Oraindik ez dute erabaki txupinazoa nork piztuko duen, baina monitorea bat beharrez Inurriko gaztetxo bat izango dela aurreratu dute.

Inurri 1984an sortu zen. Beraz, datorren denboraldian 25. urteurrena ospatuko dute. Aurten, sanfaustoak amaitutakoan, talde berri bat sortuko dutela azaldu dute. 2004/05 urteetan jaiotako gaztetxoek zuzendutako taldea izango da.



**AGIRREZABAL**  
48200 DURANGO  
e.aguirrezabal@euskalnet.net

**elektrotresnak**  
Tel.: 94 620 22 84  
Fax: 94 620 22 84  
Juan Antonio Abasolo, 10

**zikloak**  
Tel.: 94 681 03 88  
Fax: 94 620 22 84  
fco. Ibarra, 7 mikeldi

**gau-tu**  
Atsedeen sistemak eta oihalak  
Olleria 3, Durango - Bizkaia - Tel.: 94 655 07 00  
gau-tu@hotmail.com

**GALLASTEGI**  
gallastegiharategiak@euskalnet.net  
1955 ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

# Jaiak bai, murrizketak ere bai

Aurtengo jaietako aurrekontua %30 murriztu du udalak; 247.000 euro bideratu dituzte jai egitaraura

**K**risia Durangoko jaietara heldu da. %30eko jaitse-  
ragaz moldatu behar izan  
du aurtun jai batzordeak. Natxo  
Martinez zinegotziak (EAJ) murriz-  
keta garrantzitsua dela aitortu zuen  
jaien aurkezpenean: "Kontziente  
gara ez dela dirua neurri barik gas-  
tatzeko sasoa". Onartu du hain-  
besteko beherakadagaz ia ezinez-  
koa dela egitarauan nobedadeak  
egotea.

**Tradizio handiko ekitaldiak**  
Musika talde entzutetsurik etorri-  
ko ez den arren, urtero jendetza  
batzen duten ekitaldiek Durango-  
ko jai egitarauan egoten jarraitzen  
dute. Urriaren 12an hasiko dira  
jaiak. 11:30ean, udaletxeko plaza-

Marmitako eta  
paella txapelketen  
aitzakian koadrilan  
bazkalduko dute  
durangar askok

Unai Iturriaga, julio  
Soto eta Onintza  
Enbeita arituko dira  
udaletxeko plazan  
bertsotan

raino igoko dute Patxikotxu. Tron-  
perri, Txoritxu Alai eta Kriskitin tal-  
deek hartuko dute txupinazoa jaur-  
titzeko ardura.

San Fausto Egunerako inda-  
rrakgorde beharko dira, egun oso-  
ko egitaraua prestatu dute-eta.  
Marmitako eta paella txapelke-  
ten aitzakian koadrilan bazkaldu-  
ko dute durangar askok. Urriaren  
13an egin ohi den marmitako txa-  
pelketa merkatu plazatik Land-  
ko Gunera aldatu dute. 70 biko-  
tek parte hartu ahaliko dute aur-  
ten. Arratsaldean, erreka jaitziera  
eta *Balkoitik balkoira* bertso saioa  
izango dira ikusgai. Unai Iturria-  
ga, Julio Soto eta Onintza Enbei-  
ta ariko dira udaletxeko plazan.  
Bertsolaritzarekin hurrengo

hitzordua urriaren 19an izango  
da, San Agustin kultur gunean.  
Maialen Lujanbio, Jon Maia, Miren  
Amuriza eta Igor Elortza igoko  
dira oholtzara, Unai Iturriaga gai-  
jartzaile dutela.

Zezenekin zerikusia duten  
hainbat ekitaldi izango dira Duran-

gon. *Zezenak diragaz* urriaren  
12an, 13an, 14an eta 20an zabal-  
duko dute eguneko egitaraua.  
Egun bat gutxiago edukiko dute  
aurten sanfaustoek eta *Zezenak  
diragaz* ere gauza bera gertatuko  
da. Barraken ondoan, berriz, zezen  
plaza jarri dute.



## Bertsioen Gaua, urriaren 20an

Durangoko musika taldeek klasikoek bertsioak joko dituzte urri-  
aren 20an, Andra Marian. Bertsioen Gauerako, bost taldek eman  
dute izena. Kimetz Zenitagoia antolatzailearen berbetan, par-  
te-hartzaileak gogotsu daude prestatu dituzten bertsioak jen-  
daurrean eskaintzeko: "Taldea batzuek kontzertu gutxi eman dituz-  
tenez, taula gainera igotzeko aukera izango dute". Greatest Hits  
egitasmoaren sortzaileek antolatu dute kontzertua, udalaren  
ekimenez. Batez ere, taldeko partaide gehienak Durangokoak  
dituzten bandei zuzendutako ekimena izan da.

Gossip - Zoom  
Blink 182 - Septenber Boys  
Paramore - Farewell  
Su Ta Gar - Sugo  
Barricada - Tribute to

 **AMAYA**  
AUTO KONPONKETAK S.L.  
UAL, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)  
48215 Iurreta / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango  
Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • email: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com

primitiba kinielak egunkariak aldizkariak  
**IKERFER**  
Ermodo 25 behea. Durango  
Tel. 94 681 05 66

**Azkonizaga**  
Ortuzar auzoa, 1 • 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel./Fax: 94 681 06 52  
azkonizaga@azkonizaga.com  
www.azkonizaga.com  
CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑA CLARA • LA ASTURIANA

 **CHAYES**  
TAPIZAK  
MOKETAK  
ALFONBRAK  
GORTINAK  
LARRUKIAK  
LANERAKO BABES-JANTZIAK  
INDUSTRIAKO HORNIGAIK  
DENDA ETA ERAKUSKETA:  
Erretentxu, 28 behea  
DURANGO  
Tel.: 94 681 11 80  
Faxa: 94 620 09 38

# San Fausto Jaiak 2012



**momotx**  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06



**IBAIZABAL**  
Kafetegia  
Tel.: 94 655 01 85  
Ibaizabal auzunea, 2A  
48200 Durango



**TABIRA ETXEA**  
• Pintxoak • Bazkariak • Afariak  
Tabira Kalea 33 • Durango  
Tel.: 94 681 02 41



**ZERO**  
Ostegun, ostiral eta larunbatetan afariak  
Andra Mari plaza, X - Durango

## Euskaraz bizi garenon j

Durangoko euskalgintzako hainbat eragilek elkarlanean prestatuko dute



**D**urangoko eta Durangaldeko euskaltzaleek luza-ro buruan izan duten ideia gauzatuko dute 2012ko Durangoko San Fausto jaietan. Gukagunea eskainiko diete jaietara hurreratzen diren herritar guztiei, lehenengoz.

Eguneroko bizitza euskaraz egiten dutenei nahiz egin gura-ko luketen herritar guztien gunea izango da Guka.

Guka ez da besterik, euskaraz bizi direnen eta bizi gura dutenen jaietako elkargunea baino, eta Durangaldeko euskalgintzako hainbat eragile eta elkarte dira espazio horren sorre-

Euskaraz bizi direnen eta bizi gura dutenen elkargunea: Guka

"Euskaraz bizitzeko lekuak berreskuratzeko ahaleaginean dihardugu"

ra bultzatu dutenak: Berbaro Taldea (Berbaro euskara elkarte, Plateruena kafe antzokia eta Anboto astekaria batzen ditu) Ibaizabal ikastola, Durangoko AEK eta Euskal Herrian Euskaraz elkarreak.

Durangoko Plateruenean eman zuten, astelehen iluntzean, Guka guneko helburuen eta egitarauaren berri bultzatzaileek. Durangoko elkarte horietako 30 lagun inguru batu ziren ekimena zertan datzan eta zein egitarau eskainiko duten azaltzera.

Durangoko Kurutzia galeko txosnagunean agertuko da Durangoko euskaltzaleen bul-

## Umeentzako tailerrak zein Kantulagun saioa aukeran

Umeentzako tailerrak eskainiko dituzte Guka gunean, urriaren 13an, eta egun horretan jai-zaleak batuko dituen paella janera ere gonbidatu dituzte herritarrek. Paella prestaketan eta ondorengo bazkarian parte hartu gura duenak ere zabalik dauzka ateak: Gukan batzen diren elkarteekin harremanetan jarrita batu daitezke urriaren 13ko jaira.

Guka guneko egitarauaren barruan, bestalde, Kantulagun saioa ere antolatu dute, urriaren 20rako. Eguerdian, 13:30ean, izango da Kantulagun ekimenaren txanda. Plateruenean hilerio izaten diren saioak bezalako jaietan egitea da eki-

men horren helburua. Beñat Aiartzak gitarragaz eta Ugaitz Catalanek kantuan egingo dituzte saioaren gidari lanak. Kantutegi berezia prestatuko dute, gainera, San Fausto jaietan jaigiroa kantuz janzteko.

Guka txosnagunean, gainera, edariak zein bokatak ere eskainiko dituzte Berbaro euskara elkarteak, Plateruena, Ibaizabal ikastolak, Durango-

ko AEK-k, Euskal Herrian Euskaraz elkarreak eta Anbotok. "Jan-edana eta aurrez aurre euskaraz mintzatuko gatzazkizun pertsonak".

Horrelakoak izango dira Gukan topatu ahal izango diren boluntarioak, Plateruenean aurkezpenean azaldu zutenek, bertaratzen direnek Durangoko gune euskaltzalean.

Jaigiroa bisita egitera zein gunearen muntaketan edo txandetan parte hartzera gonbidatu dituzte antolatzaileek herritar guztiak. Elkarrekin, "guka berba egin gura duzen guztiok zatz gonbidapena duzue hau", bota zuten gonbitea Plateruenean.

Guka guneko egitarauan, Kantulagun ere antolatu dute





# Jaietako gunea: Guka

lehenengo txosnetako karpa bat, eta egitarau berezia eskainiko dute jaietan



Durangoko elkarte horietako 30 lagun inguru batu ziren aurkezpenean

"Pertsonak, jaiak eta bizipoza batzen diren lekuan egon gura dugu"

tzadatik jaietako Guka lehenengo jendaurrera.

"Urteak daramatzagu euskara herri-bizitzara ekarri guran eta, oraindik ere, euskaraz bizitzeko lekuak berreskuratzeko ahaleginean dihardugu", diote ekimenaren bultzatzaileek. Horregatik, Durangoko San Fausto jaietan ere parte hartu eta agertu beharra ikusi dute: "Pertsonak, jaiak eta bizipoza batzen diren lekuan". Hor ere euskaraz gozatzeko.

Iaz, besteak beste, espazio honen sorrera bultzatu duten eragile euskaltzaleen ekimenez, *Euskaraz bizi nahi dut* ekimena

jarri zuten Durangoko San Fausto jaietan martxan. Durangoko euskalgintza batzeko lehenengo pausoa izan zen iazkoa, eta norabide berean eman dituzte gero-gera pausak, Durangoko euskalgintzaren eta euskaltzaleen elkarlana aurtengo jaietan ere irudikatuko baitute.

Etorkizunean, bai Durangoko San Fausto jaietan eta baita jaietatik kanpo ere, Durangoko euskaltzaleen elkargune izango diren espazio fisiko eta sinboliko gehiago sortzen jarraitzeko asmo sendoa agertu dute Guka sortu duten euskalgintza-ko eragileek.



**PLATERUENA**  
Durangoko Kafe Antzokia

Menu berezia urriaren 12, 13 eta 20an

Goizaldera arte bertan aurkituko gaituzu

**GOZATU SAN FAUSTO JAIK!**

**Mesoi Berria** Kalebarria, 1 - Tel.: 94 603 03 41

Bokatak  
Kazuelak  
Pintxoak

**PAULANER DURANGO**

11:00etatik 03:00etara asteleheneetik igandera

- Botoak: 8 amerikar pista
- Askotariko inportazioko garagardoak
- Ospakizunak
- Karta zahala: plater konbinatuak, entsaladak, hanburgesak,...

Erretentxu kalea 31 behe • 48200 Durango (Bizkaia) • Tel.: 94 603 35 96

**telepizza**®

Askatasun etorbidea, 25  
Tel.: 94 621 81 86

**LARPIKO DURANGO**

**SAN FAUSTO JAIETAN menu bereziak!**

Francisco Ibarra, 3 - Durango - Erreserbak: 94 621 81 22

**GORAGORA**

- pintxoak
- ogia
- izozkiak...
- ...eta askoz gehiago!
- hur bildu eta gozatu!!

ARRILUTEA 2 bi (TABERA) DURANGO - 94 681 13 84

# DURANGOKO TXOSNAK

JAIK HERRITIK HERRIARENTZAT

SAN FAUSTOAK 2012



## EGUENA URRIAK

11

- 20:30 KALEJIRA
- 21:00 TXUPINAZOA
- 22:30 DIRTY BROTHERS + POLIPUTOS + GHERTZAINAK

## DOMEKA URRIAK

14

- 16:30 UMEENDAKO PAILAZOAK TXOSNETAN
- 18:00 NAICA+ JOHNNY & JOSEPH

## BARIKUE URRIAK

12

- 12:00 UDALETXEKO TXUPINAZUE
- 12:30 OKELAZEGINIKO BURDUNTZI PINTXOAK ANDRAMARIN
- 17:00 KIROL HERRIKOIAK TXOSNETAN
- 20:00 DEBAKO ELEKTROTARANGA
- 22:30 PIARA+ RAPEROS DE EMAÚS+ LOS CHICOS DEL MAIZ

## BARIKUE URRIAK

19

- 18:00 TORTILLA TXAPELKETA TXOSNETAN
- 20:00 SARI BANAKETA
- 22:30 KILAUEA+ LAS CULEBRAS + NUEVO CATECISMO CATOLICO

## ZAPATUE URRIAK

20

- GAZTE+ MOZORRO EGUNE GAIA:ZINEA

## ZAPATUE URRIAK

SAN FAUSTO EGUNE

13

- 11:00 PAELLATXAPELKETA TXOSNETAN
- 14:30 SARI BANAKETA
- 15:00 BAZKARIA TXOSNETAN
- 17:30 ERREKA JAITSIERA TABIRAN
- 22:30 ZARRAPARRA + KRUDERS+ GOZO-GOZO

- 13:00 GAZTE POTE O ANIMATUA

- 15:00 GAZTE BAZKARIA TXOSNETAN

- 17:00 KUADRILEN ARTEKO OLINPIADAK TXOSNETAN

- 20:00 DESFILEA ETA SARI BANAKETA TXOSNETAN

- ONDOREN ELEKTROTARANGA ALDE ZAHARRETIK

- 22:30 AFU+ LUHARTZ

INFORMAZIO GEHIAGO

WWW.DURANGOKOTXOSNAK.ORG

# Bilgune Feministak botako du aurten txosnetako txupinazoa

Lau karpa eta bost txosna ipiniko dituzte Kurutziagan



Txosnagunea Kurutziaga kalean egongo da aurten. Lehenengo bider hartuko dute leku hori eragileek euren txosnak ipintzeko, aurreko urteetan Pinondon, Zumarkalean eta Galtzaretan kokatu ostean. Txosna batzordeak azaldu duenez, lau karpa eta bost txosna ezarriko dituzte. Karpek ematen duten aterpea gogoratu dute herritarrak animatzean: "Eguraldi txarra eginez gero, kontuan izan 850 metro karratuko estalpea egongo dela." Bilgune Feministak botako du gune horretako txupinazoa, urriaren 11n. Hortik aurre-

ra, egunez eta gauzez disfrutatzen gona egin dute: "Egitarau anitza eta oparoa egiten saiatu gara".

Nobedade bati eman diote indarra txosna batzordekoek. Urriaren 12an, udal txupinazoaren ostean, burduntzian eginiko okela pintxoak banatuko dituzte Andra Marian.

### Argiak, kamera, akzioa!

San Fausto Eguna izan ohi da tradizio handienekoa Durangon. Txosnetan ere paella txapelketa egingo dute, eta bertan parte hartzeko deialdia egin dute. Beste ekitaldi gastronomiko bat Gazte Eguneko bazkaria izango da. Urriaren 20an dute hitzordua. Iaz 450 gazte batu ziren eta aurten gehiago elkartzea espero dute.

Zinea aukeratu dute disfrazerako gai edo inspirazio iturri

Burduntzian eginiko okela pintxoak banatuko dituzte urriaren 12an

Gazte Egunak Mozorro Egunagaz bat egingo du. Zinea aukeratu dute disfrazerako gai edo inspirazio iturri. Beraz, festazaleek egun batez euren gogoko aktoreen antza hartzeko aprobetxatu ahalko dute. Doakoa izango da txosnetako 'pelikula'.



## Los Chikos Del Maíz, buruak eta kontzientziak astintzeko

'Pasión de Talibanes' lan berriko kantak eskainiko ditu Valentziako rap taldeak txosnagunean, urriaren 12an

Los Chikos Del Maíz talde valentziarrak txosnagunean joko du urriaren 12an. Hip-Hopa lantzen dute 2005etik, eta maketa bi, disko bat eta DVD bat kaleratu dituzte. *Pasión de Talibanes* izeneko DVDa irailean bertan ipini zuten salgai eta, arrakastaren seinale, Espainiako hamar lan salduenen artean egon da. Hain zuzen ere, lan berri

hori aurkeztuko dute Durangoko jaietan. Taldeko raperoak *Nega* eta *Toni el sucio* dira, eta *DJ Bokah*-ren musika eta erritmoak erabiltzen dituzte oinarrian.

Buruak bakarrik ez, kontzientziak astintzeko ere erabili gura dituzte kantuak. Ikuspegi ezkertiarra darabilte letretan, ironia eta kritika zorrotzez pozoinduta.

DVDa Espainiako hamar lan salduenen artean egon da

Ikuspegi ezkertiarra darabilte letretan, ironia eta kritikaz pozoinduta

**Ana Camarero**  
• apaindegia •

**PROMOZIOAK**

Gorputz-esfoliazioa	25 euro
Aurpegiko lau sesio, azidoekin	180 euro

Goienkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • 48200 Durango



# Mota guztietako musika aurtengo sanfaustoetan

Su Ta Garren heavya, Los Sabandehosen tradizio kanariarra eta Luhartzen erromeria egongo dira jaietan

Aurtengo San Fausto jaietan ere musika eskaintza zabalaz gozatzeko aukera egongo da. Su Ta Gar talde eibartarra eta Los Sabandehos kanariarrak ariko dira Durangon, besteak beste.

Euskal metal doinuak urriaren 19an entzun ahal izango dira, barikuan, Su Ta Gar taldearen eskutik. Aitor Gorosabelen taldeak Landako Gunean joko du, Basaki taldearen ostean. 23:00etan hasiko dira kontzertuak,

eta DJ Eleptunoren musika elektronikoa-gaz bukatuko dute gaubela.

Los Sabandehos kanariarrak, aldiz, San Fausto Egunean igoko dira Landako Gunean oholtzara, urriaren 13an. 40 urte baino gehiagoko ibilbidea du Los Sabandehosek. Kanariar Uharteetako musika tradizionalagaz batera, musika hegoamerikarra eta boleroak uztartuko ditu. Hamar euro balio du sarrerak, 22:00etan hasiko den musika emanaldirako.

Gorosabelen taldeak Landako Gunean joko du, Basaki taldearen ostean

Los Sabandehosok musika hegoamerikarra eta boleroak uztartuko ditu

## Kaleko musika ere bai

Kaleko musikak ere girotuko ditu Durangoko jaiak. Tabira Musika Banda, Uzartza Txistulari Banda eta Durangoko Orfeoiaz aparte, hiru fanfarrea ere ibiliko dira kalekale: Sama Siku, Guretzat eta Sugarri.

Erromeriek ere euren tokia izango dute sanfaustoetan. Luhartz taldearen eskutik, euskal erromeriaz gozatzeko aukera izango da Ezkurdi plazan, urriaren 12an, 23:00etatik aurrera. San Fausto Egunean Marmitako txapelketaren ostean, berriz, Akerbeltz erromeria taldea ariko da Landako Gunean.



## Zazpigarren aldiz egingo dute Duatloi Herrikoia Durangon

Mugarra Triatloi Taldeak adin guztietara egokitutako Duatloi Herrikoia antolatu du aurtengo jaietarako ere

Beste behin ere, Mugarra Triatloi Taldeak Duatloia antolatu du San Fausto jaien harira. Urriaren 7an, domekan egingo dute VII. Duatloi Herrikoia, eta Durangoko Santa Antatik abiatuko dira. Izen-ematea goizeko bederatzietan hasiko da; bestela, bezperan eman ahal da izena, 19:00tik 21:00era, Gure Kabiya tabernan. Hamalau urtetik beherakoek euro bat ordaindu beharko dute, eta nagusiek hiru euro.

Haur zein helduentzako duatloia froga guztiz herrikoia da, eta ez da ez sailkapenik ez denborarik hartuko. Korrika saioak eta bizikleta ibilbideak adin tarteen arabera egokitu dituzte. Lehendabizikoak irtezen zortzi-hamalau urte artekoak izango

dira, 10:30ean. Gero, zazpi urtetik beherakoek txanda izango da, 11:00etan, eta gurasoek lagundu ahalko dute, horrela gura izanez gero. Azkenik, hamabost urtetik gorakoak irtengo dira, 12:00etan.

Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea eta mendi bizikleta eroatea komeni da.

### Bilbao Athleticen kontra, Tabiran

Urriaren 10ean, 19:00etan, Durangoko Kulturala eta Bilbao Athletic futbol taldeen arteko partidua jokatu da Tabira futbol zelaietan. San Fausto jaietarako bereziki antolaturiko partida da eta sarrera 5 euroren truke eskuratu ahal izango dute ikusleek egunean bertan.



**HITZ**  
liburu-denda

artekalea 14.  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

**añatza abasolo**  
fisioterapeuta

tcl./fax : 94 681 68 78  
688 86 84 62

Mikeldi 8, beheka · 48200 Durango

Haurdunaldian, erditu aurretik eta ostean  
Gernu-inkontinentzia  
Pelbis-perineo disfuntzioak

**URTZINTZA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

**TXOPOETA**  
JANARIDENDA

San Inazio auzunea 1. zkia B  
DURANGO  
Tel.: 94 681 60 80

**anboto**  
www.anboto.org

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

anboto komunikabideak

# ALMACENES ARRASATE



**TIEN 21**

Intxaurrondo, 12 behea  
Tel.: 94 681 34 85  
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon  
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



**2** UNTS

1200  
b/min  
6 kg

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa.

**GARBIGAILUA 3TS865E**  
299 €

**2** UNTS

1200  
b/min  
7 kg

**A<sup>+++</sup>** Sailkapen energetikoa.

**GARBIGAILUA L70271FL**  
420 € **AEG**

**2** UNTS

1400  
b/min  
7 kg

**A<sup>++</sup>** Sailkapen energetikoa.

**GARBIGAILUA WM14E470EE**  
420 € **SIEMENS**

**2** UNTS

1200  
b/min  
8 kg

**A<sup>+++</sup>** Sailkapen energetikoa.

**GARBIGAILUA F-8212**  
430 € **FAGOR**

**2** UNTS

1200  
b/min  
8 kg

**A<sup>+++</sup>** Sailkapen energetikoa.

**GARBIGAILUA WAQ24468EE**  
465 € **BOSCH**

**2** UNTS

8 kg  
kondentsazioa

**LEHORGAILUA WTE86111EE**  
465 € **BOSCH**

**2** UNTS

8 kg  
kondentsazioa

**LEHORGAILUA SF820CE**  
399 € **FAGOR**

**2** UNTS

**INDUKZIOA HK633220XB**  
445 € **AEG**

**2** UNTS

**LABEA BP3313091M**  
475 € **AEG**

**2** UNTS

**INDUKZIOA 3EB-915LP**  
430 € **Balay**

**PREZIO  
BEREZIAK**

**SAN FAUSTO AUZOKO ETA ABADIÑO KO  
BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO**

**FAGOR**  
edesa

**BOSCH**  
**Balay**

**AEG**  
**SIEMENS**

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA	MERKAPAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI



# izan berbalagun praktikatu gurekin!

## ZEIN DA BERBALAGUNEN HELBURUA?

Berbalagun proiektuak gure kaleetan **euskararen presentzia zabaltea eta handitzea** du helburu nagusia. Eta, helburu hori lortzeko, Durangaldeko udalen laguntza eta babesa du, baita Mankomunitatearena ere.

## ZER DA BERBALAGUN?

Lauzpabost lagunekin eta euskaldun laguntzaile batekin **berbataldeak** antolatzen ditugu, astean behin elkartzen direnak. Eta partaideen zeregina da **euskeraz berba egitea**.

Berbalagun egitasmoan parte hartuz, **euskaraz berba egiteko ohitura** sortzen da, eta **euskara-maila hobetu**. Gainera, **kultur ekitaldiak** (lehiaketak, ikus-entzunezkoak, tailerrak...) ere antolatzen ditugu. Eta hau guzti hau, **dohainik**.

## IZENA EMATEKO LEKUAK

**ABADIÑO:** Errota Kultur Etxean.

**ATXONDO:** Udaletxean.

**BERRIZ:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.

**DURANGO:** AEK euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizkuntza Eskolan eta Berbaron.

**ELORRIO:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.

**IURRETA:** Ibarretxe Kultur Etxean.

**IZURTZA:** Udaletxean.

**MAÑARIA:** Udaletxean.

**OTXANDIO:** Udaletxean.

**ZALDIBAR:** Udaletxean.



indartu zeure euskara eta lagundu euskara indartzen!

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskara gustuko baduzu, edo euskara praktikatu eta hobetu nahi baduzu, edo konfiantza hartu nahi baduzu.

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskeraz ondo badakizu, eta ikasi edo berba egin nahi duenari laguntzeko prest bazaude.

**Aita edo ama bazara eta eskolan umea badaukazu,** eskolan bertan eman ahal izango duzu izena, **gurasolagun** ekimenaren bitartez.

**eman izena!**

praktikatu.org



Partaide guztiak EHUko kredituak eskuratu ahal dituzte, bidaia eta egonaldietarako deskontuak, AIZUI, ARGIA eta BERRIA merkeago...

## INFORMAZIOA

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com

durangaldea@aec.org

## Antolatzaileak eta Udalak



## Babesleak



# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Guka! Euskaraz, lehenengo pertsonan, pluralean

Gu gara. Euskara darabilgunak, euskaraz bizi gura dugunak, harremanak euskaraz egin gura ditugun pertsonak. Ez gara siglak, ez gara egiturak, ez gara estatistikak, pertsonak gara, Durangaldekoak eta Euskal Herrikoak. Urteak daramatzagu euskara herri-bizitzara ekarri guran, eta oraindik ere, euskaraz bizitzeko lekuak berreskuratzeko ahaleginetan dihardugu. San Fausto jaiak ditugu orain buruan, pertsonak, jaia eta bizipoza batzen diren lekuan egon gura dugulako.

Hika, zuka, berorika... Guka! Guka berba egin gura duzuen guztiontzat gonbidapena duzue hau, San Fausto jaietako txosnagunean izango dugun lekura etorri zaitezten. Baina etorri bakarrik ez, guka-guka, elkarrekin lekua egin dezagun proposamena ere baduzue: berdin muntaketan edo txandetan parte hartuz, zein jaigiroan bisita eginez. Zer aurkituko duzun bertan? Janedana eta aurrez aurre euskaraz mintzatuko gatzazkizun pertsonak, pluralean.

Jaiak gozatzeko egitarau ugari antolatu da aurten ere Durangon. Aukean dituzue txosnagunearena zein udalarena. Euskarazko ahalik eta hitzordu gehienak gozatzeko dei egiten dizuegu, eta bereziki Gukan elkartzeko antolatu ditugunetan parte hartu dezazuen: urriaren 13an prestatuko dugun paela janez, egun berean eguerdirako antolatu ditugun umeen tailerretan seme-alabekin parte hartuz, eta urriaren 20an 13:30etan Kantulagunean kantuan eginez.

Han izango gara gu, atsegin baduzu zurekin. Egin dezagun Guka!

Aek - Euskal Herrian Euskaraz - Ibaizabal ikastola - Berbaro Taldea

## Irailak 28 zituela

Irailak 28 zituela, eguerdiko hamabiak jo zuten orduan, txapliguen eztanda hots artean eman genien hasiera 2012. urte honetako San Migel jaiak. Jai giroa nagusitu zen orduan herrian, bazkaldu eta Donien Atxa jaso ostean, herritarren jai grina guztiak ase asmoz osatutako egitarauak ez zuen atsenden hartu.

Iurretako Jai batzordeak hilabeteetan egindako lanaren emaitza da guztion artean eta guztiontzat sortutako jai egitarau hau eta gure eskura ditugun baliabide guztiak erabiliz, ardura eta lanak elkarbanatuz, gustu handiz egiten dugun lana da gainera.

Pasa da jaietako lehenengo asteburua. Ostiraleko lanparrak ez zituen jai zaleen gogoak txikitu, eta larunbatak jende andana ekarri zigun Iurretako plazara. Ongi etorriak izan zaitezte elkar errespetatuz, jai giroaz gozatzera etorri zaretan jai zaleok.

Alabaina, zapatu gauak utzi zuen aho zapore garratzik ere. Iurretako Jai Batzordeko kideok, inor errespetatu gabe herriko txoko ezberdinetan txikizio eta kalteak eragin zituzten pertsona horien jarrera salatu nahi dugu. Jaien berezko errespetuzko izaera alai horretatik at herritarren ondasunak kaltezte beste helbururik ez zuten izan gertaera haiek, eta hori ez da sustatu nahi dugun jai eredu.

Oraindik orain, jai egitarauak bere horretan dirau. Igandean jaiak bukatu bitartean beste asteburu batez gozatzeko parada izango dugu, eta Jai Batzordeko Iurretako San Migelez gozatu nahi duen orori luzatzen diogu gonbidapena, gure herrira bertaratuz eta elkarren errespetua eta herritarren partehartzea sustatuz jai ahaztezinak bizi ditzagun. Azken txanpa da! Zatozte! Gora Iurreta! Gora San Migelak!

Iurretako Aitte San Migel Jai Batzordea

## Alkateari eta Hirigintza eta Kultura zinegotzietei

Prentsan agertutako informazioen bidez jakin dugu aurten, eta San Fausto zaindariaren jaien harira, txosnak Kurutziaga kalean ipiniko dituztela (...) Erabaki horren kontra gaude erabat, eta gure haserre erakusten dugu, udaletxeak ez gaituelako kontuan hartu, erabakian inplikaturako ordezkari bakarrak ere ez duelako gutxieneko lana hartu gu informatuta edukitzeko, are gehiago erabaki hori hain tamaina handikoa izanda, gure eguneroko bizimoduan eragin larria izango duena bi asteburu osoz, euretako bat hiru eguneko. Era berean, haserre gaude gure ordezkari politikoek ezetza eman diotelako gure auzotarrak hartzei, auzotarren helburu bakarra informazioa lehen eskutik lortzea zenean, gero besteoi kontatzeko.

(...) gure kalean txosnak jartzei zergatik esaten diogun ezetz azaltzen dugu ondoren: (...) Kurutziaga kaleko etxebizitza gehienak ehun urtetik gorakoak dira, eta oinarrizko azpiegitura egurrezkoa dute, eta ez daukate gaur egungo isolamendu materialik, nolabait altabozen eragina motelduko luketenik, are okerrago distantzia nahikorik ez dagoenean karpenek eta etxebizitzaren artean. (...) Aurreko motiboetako asko edozein herritarrek eman ahalko lituzke, baina, aurrekoei guk arrazoi espezifikoko gehitu ahal dizkiegu, herriko beste edozein kalek biltzen ez dituen arrazoiak.

Kurutziaga kalea, antzinako Durangoko errabal zaharra, herriko zona historikoa da, etxebizitza gehienak oso zaharrak dira, gure historiaren aztarnak dituztenak fatxadetan, (...) laburbilduz, arkitektura multzo bat, urteetan zehar bere horretan mantendu duguna, eta txosnak bertan kokatzeak arrisku larria ipini ahal dituen. (...)

Aurrekoa guztiari gehitu behar diogu Ertzainetxea Kurutziaga kalean bertan dagoela, eta horrek gatazkak sortu ahal ditu, txosnagunera hurreratzen diren eta aipatutako polizia artean. (...)

*Kurutziaga kaleko auzotarrek udaletxean aurkeztutako idazkiaren pasarteak.*

Javier Azurmendi Arsuégi, Kurutziaga kaleko auzotarren izenean

## Klik batean @



### "Lapurrei laguntzen"

San Martín Plaza eta Olazar kaleko inguruko hainbat argi ez dabilta aspalditik, eta batzuk ia urtebete dabilta argi barik, ermita aurrealdean dagoena kasu. Ez litzateke hain larria izango, azken aldi honetan, hainbat lapurreta gertatu ez balira herrian. Orain, gero eta lehenago iluntzen duenez, lapurrek errazago izango dute bere lana, herritarren beldurra handituz. San Martín inguruan ume asko dabilta Zapatubla, pilota, .... Beraz argirik ez badago guztion segurtasuna nabarmen murrizten da.

Unai García Vara

### Laguntzaileak:



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko urriaren 5a  
10. urtea - 474 zk.

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,  
Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako,  
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale



San Martin ermita izen bereko baserriaren ondoan kokatuta dago.



Santa Martin ermitako santua.



San Juan ermita.



Antzinako auzo eskola.

## Goitana auzoan barrena, ermita, bolatoki eta antzinako eskolen artean

San Martin ermita izen bereko baserriaren alboan kokatuta dago eta dotore zainduta daukate; San Juan ermitak antzinako auzo-eskola eta bolatoki eraberritua ditu inguruan

Iparaldean Markinarako errepideagaz egiten du muga Goitana auzoak (Mallabia). Hegoaldean, ia Mallabiako herriguneraino jaisten da. Muga biak elkartzen dituen aldapa luzean, belardi eta zuhaitzi berdeak eta baserri dotoreak aurki daitezke. Hiru ermita ere baditu Goitanak: San Martin, San Juan eta Santa Katalina. Auzoaren erdian San Juan dago eta beste biak alde banatara. Hirurek lerro bat osatzen dute. San Juan ermitako leiho estutik zuzen begiratuta, San Martin ikusten da, eta beste aldeetik, lerro berean, Santa Katalina dago, arboladiek ikuspegia estaltzen badute ere. Kurioso da, baina auzoaren eraketa (goitik behera eta luzetara) eta hiru ermitenak (ezkerretik eskumara) elkartuta, gurutze handi baten forma hartzen du auzoak.

San Martin baserriaren alboan dago izen bereko ermita. "Edo ermita ote dago baserriaren ondoan?". Galdera horixe

Hiru ermita ditu Goitanak: San Martin, San Juan eta Santa Katalina

San Martin azaroaren 11n da, baina maiatzaren bigarren edo hirugarren astean ospatzen dute

bota du airera Felixa Pagaegik. Bera bizi den baserria, edo ermita, bietako zein egin zuten lehenengo? Izan ere, baserriak atarteko arkuaren erdi-erdian harrizko gurutze bat du. Modu batera zein bestera, ermita etxaurreko parte da gaur egun eta ederto zaindurik daukate. Barrualdea garbi, umeltasun usain barik. Kanpoaldetik, jatorrizko harria bistaratuta eta tarteak zuriz pintatuta. Alboko lore eta fruitarbolek kolorea ematen diote eta, inguruan dabiltzan katu, txakur eta abereek bizia. Aipagarria da, baita ere, gorune batean dagoen antzinako golde eraberritua.

Berez, San Martin Eguna azaroaren 11n da, baina Goitanan maiatzaren bigarren edo hirugarren astean ospatzen dute: "Orain urte asko, ermita eraberritu zenean, ospakizuna egu-

nez aldatzea erabaki zuten auzotarren, azaroaren sarritan euria egiten zuelako", gogoratu du Jose Mari Zubiatek, San Martin baserriko bizilagunak.

Santa Katalinan ez dute santuaren egunik ospatzen, baina San Juanen bai, ekainaren 24an. San Juanek bolatokia eta sasoi bateko auzo-eskola ditu alboan, biak egoera onean. Bolatoki errektangularrak teilatu berria du, egurrezko egitura sendo eta dotorekoa. Ermitaren atarian 500 kiloko harria dago gordeta, jaietan erakustaldiak egiteko erabiltzen dutena.

Trabaku gainean daude hiru ermitetarako edo auzoko etxetarako sarbideak. Hiru sarrera ezberdin dira, Berriztik Markinarako norabidean eta eskumaldek bat bestearen nahiko segidan daudenak.



@anbotokirola

# KIROLAK >

## “Gainetik 30 kilo kendu banitu lez sentitzen naiz txirrindularitza utzita”



Eneritz Iturriaga, eguaztenean, bizikletan ibiltzera irten aurretik.

Astebete joan da txirrindularitza utzi duela iragarri zuenetik. Eneritz Iturriagak (32 urte, Abadiño) dagoeneko aldaketa igarri duela dio: “Presioa gainetik kentzeak bizia ematen dizu, ez dakizu zer punturaino”.

### Zeintzuk izan dira txirrindularitza uzteko arrazoi nagusiak?

Italian ia hamar urte eman eta lesio baten ostean etorri nintzen Euskal Herrira. Hemen taldeek lasterketa gutxi korritzen dituzte eta mailari eusteko urte osoan aritu beharra dago lehian. Banekien hori horrela zela, baina ez nuen berriro kanpora joateko gogorik. Gainera, nire ibilbidean lesio asko izan ditut, askotan pasatu naiz kirofanotik. Heltzen da une bat psikologikoki nekata zaudela sakrifizio gehiagorako. Alderdi ekonomikoari baino beste gauza batzuei ematen diezu garrantzia. Orduan erabaki nuen txirrindularitza uzteko sasoia heldu zela.

### Astebetean sumatu duzu bizi-modu aldaketa?

Pila bat. Gainetik 30 kilo kendu banitu lez sentitzen naiz txirrindularitza utzita. Presioa kentzeak bizia ematen dizu ez dakizu zer punturaino. Aurpegi-espresioa ere aldatu egiten da. Kirolariok oso zorrotzak gara geure buruagaz. Horri kanpotik datorren presioa gehitzen badiozu... Pisu hori gainetik kentzea nahi nuen.

### San Fausto jaiak beste modu batera bizitzeko aukera izango duzu?

Sanfaustoak gure opor sasoiaren izaten dira, baina egia da jaiak ikusteko modua aldatu egiten dela. Beste gauza bat da. Lehen zeozer edan eta buruari bueltak hasten zinen. “Bihar izerdia botatzera irten beharko dut”, pentsatzen duzu. Orain lasaitasun osoz irten ahal dut, ardura barik.

### Txirrindularitza profesionaletik zer sentituko duzu faltan?

Urte hauetan guztietan txirrindularitza egin ditudan lagunak ikustea, esaterako. Bidaiatzearen falta ere igarriko dut. Geratu barik hara eta hona gabiltzala kexatzen gara sarritan, baina gero etxean gelditu zaudenean...

“Orain hamar urte joan nintzen Italiara; bueltatu naiz eta dena berdin dago”

Ez dakit, sentsazio berria da. Bestalde, orain arte nire bizitza helburuen inguruan mugitu da. Beti nuen bete beharreko helbururen bat, eta prestakuntza horietara bideraturik zegoen. Horren falta ere edukiko dut. Hemendik aurrera ere izango ditut helburuak, baina beste maila batean.

### Tira, lesioen penarik behintzat ez duzu edukiko.

Hori seguru, duda barik. Lehiaketa edo txapelketaren penarik ere ez.

### Txirrindularitzari loturik jarraitzea gustatuko litzazukeela esan duzu. Pistarik eman zenezake?

Modu batera edo bestera txirrindularitza egin gura duten neska gazteei lagundu nahi nieke, nik jaso ez nuen laguntza jaso dezaten. Hogeitaz kanpora joan behar izan nuen, hemen ez zegoelako aukerarik. Nire ibilbidea zangozabaz beteta egon da, baina azkenean gura nuena lortu dut. Burugogorra izan naiz horretan. Gazteei aukerak sortzen lan egitea gustatuko litzaidake.

### Izan duzu eskaintzarik?

Bai, aukera bat baino gehiago ditut. Egia esan, ez nuen horrelakorik espero. Pozgarria da jendeak zure laguntza eskatzen duela sentitzea. Dena dela, abendura arte ez dut erabaki konkreturik hartuko.

### Emakumezkoen txirrindularitzaren etorkizuna zelan ikusten duzu?

Ikuspegi ezkorra dut. Begira, orain hamar urte joan nintzen Italiara; bueltatu naiz eta dena berdin dago. Atera kontuak. Italian txirrindulari legez hazi egiten zara eta, lehenengo pedal-kadak eman zenituen lekura bueltatzean, hemen zer dagoen ikusi eta pentsatzen duzu: “Italiaren egoeratik argi-urteetara gaude hemen”. Ez dago talde indartsurik, diru askorik ere ez eta, dirurik sartzen ez bada, etorkizun iluna ikusten dut.

### Zelan eman ahal zaio buelta egoerari?

Erakundeek diru-laguntzak ematen dituzte, baina gaur egun emakumeen txirrindularitza ez da inbertsio gune. Hedabideek ere lagundu behar dute. Joan zen astean, zur eta lur geratu nintzen nire prentsaurrekoan. Irabazi ditudan lasterketa denek baino oihartzun handiagoa izan zuen prentsaurreko hark. Horrek zer pentsatua eman behar luke.

### Harrobirik badago?

Harrobia badago, baina laguntza behar dute. Zaindu egin behar dira eta konfiantza eman. Gazteen mailetatik txirrindulari onak datoz. Nagusietarako pausua ematen duten uneak dira gatxanak eta orduan behar dute laguntza. ■ J. D.

## Erguin eta Luquin irabazle Mallabian

Mallabiako II. Mendi Duatloiak iazko irabazle berberak izan zituen: Jon Erguin gizonetan (1:39:48) eta Amaia Luquin (2:22:49) emakumeetan. Erguinek lau minutuan hobetu zuen iazko denbora eta Luquinnek ia sei minutuan.

Gizonetan, Unai Yusek eta Eneko Gurrutxagak osatu zuten podiuma. Emakumeetan, aldiz, Maite Murgiak eta Laura Perezek. Durangaldeko ordezkari bik lehenengo hamarren artean sartzea lortu zuten: Gorka Arrizabalaga mallabiarak zazpigarren (1.50.30), eta Ekaitz Barreinkuak zortzigarren (1.51.08). ■ J. D.

## Doningtonen, azken aurreko zita du Urienek

Igor Urien pilotua Europako Radical Master txapelketari dagokion azken aurreko lasterketako lehian egongo da, zapatuan, Donington zirkuituan (Erresuma Batua). Lasterketa horren ostean, azaroan Katalunian egingo dena bakarrik faltako da txapelketa amaitzeko.

Urien lehenengoz dabil txapelketa horretan parte hartzen. Hala ere, lasterketa bat baino gehiago irabaztea lortu du. Austrian, abuztuan, arazo teknikoak izan zituen autoagaz eta txapelketa irabazteko aukera konplikatu zitzaion. Hala ere, berak beti aipatu du bere helburu nagusia ahalik eta gehien ikastea zela. ■ J. D.


## Bizikleta ibilaldi bat Garaira, Amorebietatik

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak Pedal Egunaren 43. aldia Durangaldean ospatuko du asteburuan. Horretarako bizikleta ibilaldi bat prestatu dute zapatutako: Amorebieta-Etxanotik 17:00etan irten eta Garaira joango dira.

Aurten txirrindularitzaren arloan bereiztea lortu duten 65 txirrindulari edo elkarte sarituko dituzte Garain. Horien artean daude, esaterako, Victor Hugo Garrido, Aitor Oroza edo Raquel Mateo txirrindulari paraolimpikoak. Baita Borja Abasolo, Eider Merino, Ziortza Isasi eta Eneritz Iturriaga ere, besteak beste. ■ J. D.

# Kilometro bertikalik herrikoiena, aurtengoa

Lehenengoz ez dute inor gonbidatu gastuak ordainduta, eta profesional asko ez datoz; hala ere, 200 parte-hartzaile ariko dira



Iazko edizioko parte-hartzaile bat Anboton gora. Bittor Gorosabel

Zapatuan Anbotoko malda gogorretan gora ibiliko dira 200 parte-hartzaile, Anboto Kilometro Bertikaleko seigarren edizioan. Aurten Atxondoko Udalak hartu du proba antolatze-ko ardura eta, aurreko aldietan entzun eta jasotako iritziak kontuan hartuta, probari izaera berri bat eman diote. Joan-etorriak, egonaldiak eta abar ordainduz profesional onenei bidaltzen zizkieten gonbidapenik ez dute bidali aurtengoa. Ondorioz, askok ez etortzea erabaki dute. Esaterako, iaz gizonetan nagusitu zen Marco de Gasperi ez da etorriko. Ezta iaz lehenengo sei tokietan geratu ziren beste hainbat ere.

Aurtengo aldia herrikoia izango da, ez hain profesionali begirakoa. Hala ere, maila handiko proba izango dela azpimarratu dute antolatzaileek. Guztira 200 bat lagunek eman dute izena, Frantziakoak eta Txekiar Errepublikakoak tartean. Euskaldunen artean ere hainbat nabarmendu daitezke. Esaterako, iaz zazpigarren amaitu zuen Oier Ariznabarreta faboritoen artean dago. Orain aste bi Sorgingen Lasterketa irabazi zuen durangarrak. Gainera, biharkoa Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Openeko azken proba izango da eta opena irabazteko hautagaiak etorriko dira.

Aurtengo beste nobedade bat da parte-hartzaileak igo diren toki beretik jaitsiko direla bueltan, eta ez Zabalaunditik. Horrela, atzetik datozenak ikusteko eta animatzeko modua izango dute korrikalariek. ■ J. D.

## EGITARAUA

- 12:00etatik 13:30era: Dorsalen eta txipen banaketa.
- 14:00etan: Kilometro Bertikalaren hasiera Arrazolan.
- 19:30ean: Sari banaketa

Parte-hartzaileak: 200

## Bizitasuna abileziaren aurka trinkete finalean

Amankomunazgoa Sariko trinkete finalean aurrelari bien arteko lehia bizia espero da

Gaur, 19:00etan, Amankomunazgoa Sariko finala jokatu dute Abadiñoako Tornosolo trinketean. Mikel Gonzalez berriztarrak, Landa edukiko du bizkar-tzain, eta Robert Uriarte abadiñoarrak eta Ugartek osatutako bikoteari aurre egingo diete.

Durangaldeko aurrelari biek sasoiak daukela erakutsi zuten finalerdietan. Gaurko finalean Gonzalez pilota alde batetik bestera bizi mugitzen saiatuko da. Uriartek tantoa amaitzen duen trebetasuna izango du arma nagusia. ■ J. D.



Final laurdenetako partiduko irudia Tornosolo trinketean. K.A.

## Euskaldun Torneoa irabazi du Abasolo abadiñoarrak

Borja Abasolo txirrindulari abadiñoarrak Euskaldun Torneoa irabazi du. Otsailtik irailera 21 proba izan ditu torneoak. 23 urteko abadiñoarrak bigarren proban jantzi zuen liderraren maillota eta harrez gero ez du erantzi. Ez du lasterketarik irabazi, baina txirrindulari denetan erregularrena izan da. Garaipen horrek profesioalatarako pausua ematea ahalbidetuko dion esperantza du: "Euskaltel Fundazioak gazterik onenak batzen ditu. Garaipen honek profesioalatarako atea irekitzea itxaroten dut".

### Pistan, domina bi

Bestalde, pistako Espainiako Txapelketan, domina bana irabazi dute Iban Leanizbarrutia berriztarrak (zilarra, scratchean) eta Illart Zuazubizkar abadiñoarrak (brontzea, 23 urtez azpiko jarraipenean). ■ J. D.

## ADITUAREN TXOKOA

Unai Zamalloa  
Saskibaloia entrenatzailea



## Hasi da denboraldia

Azkeneko artikuluan aurrendenboraldian murgiltzen hasita geunden eta inguruko talde guztien erreposoa egin genuen. Oraingo honetan, barkatuko didazue baina, ACB ligako gure hiru taldeen erreposoa egingo dut liga hasiera honetan.

Bizkaia Bilbao Basket ia goitik behera aldatu da. Taldeko jokalaririk garrantzitsuenak mantenduz oinarrian (Munbrú, Herveille, Raul Lopez, Vasileiadis eta Grimau), taldea guztiz eraberritu du horien inguruan. Egia esan, talde borrokalaria eta zer esan handia emango duena egin dute bilbotarrek eta edozeinek konpetitzeko taldea dela uste dut.

Gasteizen ere taldea goitik behera eraldatu dute. Baina urtero legez liga hasiera honetan lesioak dira berri nagusia Baskoniaren lerroetan. Andres Nocioniren jarraipenarekin batera, Fabian Causeur hegalekoa eta Tibor Pleiss pibot gazteak, Taylor Rochestie eta Carlos Cabezas basea fitxatu ditu, eta talde benetan indartsua egin. Baina esan dugun bezala, Gasteizen urtero gertatzen den legez, denboraldi hasiera lesionatuz beterik etorri da eta Zaragozan ezusteko partidua galdu zuten lehenengo jardunaldian.

Eta azkenik, Donostian, European parte hartzea bertan behera uztea izan da berririk nagusia. Foru Aldundiak hitz emandako diru laguntza kentzean, Europa bertan behera utzi behar izan dute eta taldea ACB ligan ez sufritzeko antolatuta behar izan dute, Qyntel Woods eta Ekene Ibekwe jokalaririk izan direlarik fitxaketa nagusiak.

## Distantzia luzeko triatloian ez du parekorik Fradesek

Bartzelonako challenge-ak Espainiako distantzia luzeko triatloia txapelketa erabaki du aurten, eta emakumeetan Gurutze Frades (Mugarra TT) izan da txapelketako onena. Horrela, iaz Alacanten irabazitako garaipena berri du. Hauxe izan zen iurretarraren denbora: 09:53:38. Adierazi duenez, igerian eta bizikletan indartsu sentitu zen eta korrika osatu beharreko tarte koskatu zitzaion gehien.

### Bigarren urtez irabazi du distantzia luzeko Espainiako Txapelketa

Gorka Bizkarra mañariarrak (Triki-Saltoki) lehenengoz parte hartu zuen iron man luzerako proba batean eta, amaitzeaz gainera, hamar ordutik jaitea lortu zuen: 09:58:20. Ametsetako debuta izan zela adierazi du.

Unai Urienek ere (Mugarra TT) ez du erraz ahaztuko irail hasieran Sorian (Espainia) egindako iron man erdiko proba. Distantzia horretan lehenengoz aritu eta irabazi egin zuen 23 urtez azpikoan. ■ J. D.

## Agenda

### FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

#### Durangoko Kulturala - Gernika

Domekan, 11:30ean, Tabiran OHOREZKO MAILA

#### Elorrio - Sodupe

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden LEHENENGO ERREGIONALA (Gizonak)

#### Abadiño - Etxebarri

Zapatuan, 17:00etan, Astolan LEHENENGO ERREGIONALA (Emakumeak)

#### Elorrio - Orduña

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

#### Iurretako - Santutxu

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

### ARETO FUTBOLA

#### EUSKAL LIGA

#### Elorrioko Buskantza - Lagun Onak

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian MAILA GORENA

#### Sasikoa B - Askartza

Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian LEHENENGO ERREGIONALA

#### Gu Lagunak - Zamudio

Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

### PILOTA

#### OLAZAR TXAPELKETA

#### Lau t'erdian:

#### - Altuna - Ansotegi

#### - Mugika - Larrañaga

#### - Artola - Arribillaga

Urriaren 11n, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan



# PINTXO & POTEA

ZOZKETA  
**300€**  
OPARI-TXARTELETAN

ABENDUAREN 13a ARTE  
**OSTEGUNETAN**  
PINTXO-POTE  
DURANGON

PINTXOA+ZURRUTA  
(KRIANTZA, ZURITO, MUZTIO EDO ANTZEKOA)  
**1,80€**



## ESKURA EZAZU KAMISETA BAT DOAN

Eroan ezazu jaietako kamiseta bat: txartel honetan, 2 taberna desberdinetako zigiluak aurkeztu behar dituzu +dendak-en egoitzan, urriaren 4tik hasi eta kamisetak amaitu arte.



**BODEGÓN GAUR**  
Mikeldi, 1  
946 816 699



**LUPETZA**  
Askatasun Etor., 17  
663 022 253



**PLATERUENA**  
Landako Etor., 4A  
946 814 278



**SPORTS TAVERN**  
Sasikoa, 14  
946 550 173



**XIXILU**  
Oinurri, 4  
946 811 099



**HOTEL KURUTZIAGA**  
Kurutziaga, 52  
946 200 864



**MISARBE**  
Arriluzea, 15 bajo  
946 202 006



**SALTSAN**  
Kurutziaga, 40  
946 200 427



**URRATS**  
J. A. Abasolo, 3  
946 812 518

Antolatzailea Organizador:





# INMOBILIARIAK >



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ozk - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 681 35 62 • iamfoto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatuko.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### IURRETA

- 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxe ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK SALGAI

### ABADIÑO

- 5 hektareako lursaila duen baserria. Zonalde zoragarria.

### BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazaliturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politik.



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behea - Tel./Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO - Bizkaia

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Adosatua salgai, bifamiliarrak eta unifamiliarrak.
- BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
- OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTZO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTZO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatze.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, 2/3 logela eta komuna.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatze. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatze. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J. de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukalde eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONGO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kobxerentzako garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 3/4 logela eta komuna. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN INAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO: Iturritxo kalea. Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Garajea eta trastelekua.



**Inmobiliaria del Duranguesado**

Askatasun etorbidea, 10 - 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- MATIENA: San Pudentzio. Aukera. 85 m2. 3 logela. Berriztatua. 201.000€.
- MADALENA: 96 m2. Aukera. Saltzeko premia berehalako lekualdatzeagatik. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: Azken etxebizitza estreinatze-ko, beherapan handiagaz obrak likidatzeko. 2 logela. Garaje itxia.
- MARTXOAREN 8KO: beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitza salgai. 301.979 € + bez. Garajea eta ganbara.
- ZABALE: 99m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trastelekua aukeran.
- ZABALE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta balkoia. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politik.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + bez
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + bez
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- SAN ROKE: 79m2. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 2 balkoiarekin. Eguzki ugari eta ikuspegi-ekin. Berriztua. Berehalako bizitzera joateko.
- ALLUITZ-ASKATASUN: 76m2. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ALLUITZ: Erdi berria. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Ganbara. Bizitzeko sartzeko moduan.
- TABIRA: erdi berria. 50m2. Logela, egongela, sukalde jantzia, komuna, balkoia eta ganbara.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- MADALENA: erdi berria. 50 m2. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eskegitokia.
- PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO - TXIBITENA: 93 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- MURUETA TORRE: 87 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- LANDAKO: 80 m2. 2 logela, egongela balkoiarekin, 2 komun, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO: 134 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoi handia. Ganbara. Garajea aukeran.
- SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Balkoia. Ikuspegi politik. Eguzkitsua.
- ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11  
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## BERRIAK ESTREINATZEKO

Garajea eta trastelekuarekin.

- Logela eta komuna. 105.100€.
- 2 logela eta 2 komun. Terraza. 142.000€.
- 3 logela eta 2 komun. Terraza. 180.200€.
- % 100 eko finantzaketa. 450€/hileko.

## AUKERA

- ARAMOTZ: 3 logela eta egongela. 125.000€.
- JUAN DE ITZIAR: 3 logela eta egongela. Balkoia. 144.250€.
- MATIENA: 3 logela eta egongela. Igogailua. 150.000€.
- EZKURDI: 90 m2. 3 logela, egongela eta 2 komun. Igogailua. 156.000€.
- ATIKOA: berria. Estreinatze. 92 m2. 3 terraza. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 217.000€ + bez.
- MASPE: 3 logela, egongela eta sukaldea. Igogailua. 174.300€.
- DURANGO: 3 logela. Polita. 139.000€.
- INTXAURRONGO: 75 m2. 2 logela eta 2 komun. 27 m2-ko ganbara. Garaje itxia. Terraza. Eguzkitsua. 260.000€.
- MIKELDI: 100 m2. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Ganbara. 210.400€.
- BIDEBARRIETA: 85 m2. Berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea aukeran. 216.000€

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ZALDIBAR: 3 logela eta komuna. 9 m2-ko trastelekua. Alokairuan erosteko aukerarekin. 500€.
- DURANGO: txaleta. 220 m2. Txokoa eta lorategiarekin.
- ERDIALDEAN: 3 logela eta komuna. Igogailua eta berogailua. 170.000€.
- ARRILUZEA: erdi berria. Apartamentua. Terraza handia. Garaje itxia.
- EZKURDI: 115 m2. 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Terraza handia. Ikuspegi ederrak.
- MAÑARIA: berriak. 189.500€-tik aurrera.
- FRANZISKO IBARRA: duplexa. Erdi-berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- ABASOLO: 3 logela eta komuna. Igogailua.
- BARRENKALE: Berriak. Duplexa. 2 logela eta 2 komun. Estreinatze. Erosi alokairuan.
- MURUETATORRE: 3 logela. Terraza. Ganbara. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du.
- MIKELDI: 95 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta jangela-egongela. 2 terraza. Eguzkitsua. 225.000€.
- ANTZO EZTEGIZ: 120 m2. 4 logela eta 3 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea. ARGITSUA.
- ERROTARITXUENA: Estreinatze. ATIKOA. 40 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZEHARKALEA: 3 logela. Igogailua. 180.300€.
- ZUMARPARKEA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.

## LOKALAK ALOKAIKUAN

- MONTEBIDEO: 25m2. Egokitua. Alokairuan.
- ERMODO: 150 m2. Egokitua. Alokairuan.
- TRONPERRI: 60 m2. Egokitua. 600€.
- SAN INAZIO: 35 m2. Egokitua. 54.000€.
- J.A. AGIRRE: 60 m2. Egokitua. 800€.
- ZABALE: 60 m2. Egokitua. 425€.
- ALDE ZAHARRA: 45 m2. Berria. 150.000€.
- IPARRAGUIRE: lokal komertziala. 33 m2. 49.000€
- LANDAKO: 70 m2. Egokitua.
- FRANZISKO IBARRA: 70 m2. Egokitua. 600€.
- SAN INAZIO: 60 m2. 800€.
- IURRETA: Maspe, autobus geltoki ondoan. 400€.
- ERDIALDEAN: 151 m2 instalazio guztiekin. Komuna. 900€

## BESTE ZONALDE BATZUK

- ABADIÑO: Garaje itxia. Salgai.
- MATIENA: 3 logela eta egongela eta despentsa. Berriztua.
- MATIENA: 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. 14 m2-ko ganbara. Jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du.
- MAÑARIA: 110 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. Altzariekin. 199.000€

# AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Urriaren 6an, 20:00etan, Plateruenean

## ANDRÉ Y DORINE

Ahozko elkarrizketa barik, bestelako komunikazio bideak baliatzen ditu Kulunka antzerki taldeak bere ikuskizunean. Maitasunari, zahartza-roari eta Alzheimer gaixotasunari buruzko obra da *André y Dorine*. Besteak beste, txeloaren zuzeneko musika ere eskaintzen du.

### ANTZERKIA

#### BERRIZ

>> Urriaren 6an, Kulunka teatro taldearen *André y Dorine*, 20:00etan, kultur etxean.

#### DURANGO

>> Urriaren 7an, Gorakada antzerki taldearen *Printzea eta ahatea*, 18:00etan, San Agustinen.

>> Urriaren 11n, Txintxaun Kolektibo taldearen *The full monty*, 22:00etan, San Agustinen.

#### ZORNOTZA

>> Urriaren 5ean, Teresa Calok zuzenduriko *Carrera de obstaculos*, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

>> Urriaren 6an, Marie de Jongh taldearen *Alabatxo*, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

### ERAKUSKETA

#### ABADIÑO

>> Urriaren 8ra arte, Olga Lucia Gonzalezzen *Acquaria*. Errota kultur etxean.

#### DURANGO

>> Urriaren 5etik 28ra, *Minutalariak*, kale argazkilariak. Arte eta Historia Museoa.

>> Urriaren 5etik 14ra, **XII. Durango**

**Hiria** lehiaketako margolanen erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

>> Urriaren 11tik, **San Fausto 2012 kartel lehiaketara** aurkezturiko lanen erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

#### ELORRIO

>> Urriaren, Iñaki Zorrakin Altuberen **ilustrazioen erakusketa**, Iturri kultur etxean.

### IKASTAROA

#### DURANGO

>> Matrikula zabalik. AEKren eskutik Durangaldean euskara ikasi eta hizkuntza eskakizunak prestatzeko. Izen-ematea: Durango: 94 681 73 49; Elorrio: 94 658 21 11; Zornotza: 94 673 43 70.

#### IURRETA

>> Inskripzioa hasita dago. Anderebidek antolatzen duen *inteligencia emocional en la mujer* ikastaroan. Urriaren 15etik abenduaren 17ra dira saioak.

### JAIK

#### DURANGO

>> Urriaren 6an, **Euskadiko Andaluzia jardunaldiaren hasiera**, 12:00etan, Landako gunean. **XXIX. San Fausto zesta**

**punta txapelketaren finalerdiak**, 18:00etan.

>> Urriaren 7an, **XLIV. Durangaldeko gailurrak**, 08:00etan. **VII Durangoko duatloi herrikoia**, 10:00etan. **XIII. mikologia erakusketa**, 11:00etan. **Rocio meza**, 11:00etan.

>> Urriaren 8an, **Mus, tute, briska, igel, billar eta ping pong txapelketaren** hasiera.

>> Urriaren 10ean, **Futbol partida**, 19:00etan, Tabira Zelaian.

>> Urriaren 11n, **kalejira**, 20:30etan, txosnagunean. **The full monty** antzezlan, 22:00etan, San Agustinen. **Dirty Brothers, Poliputos eta Ghertzainak** taldeen kontzertua, 22:30etan, txosnagunean.

#### IURRETA

>> Urriaren 5ean, **Umeentzako berbera**, 18:00etan. **Poteoa** tabernaz taberna fanfarriak lagundurik, 19:30etan. **Zea Mays, Skasti eta Tximeleta**, 22:30etan.

>> Urriaren 6an, **Emakumeen**

**kemena kriterium soziala**, 11:00etan. **El despiste** fanfarria, 12:00etan. **Poteoa**, 12:30etan. **Bazkari herrikoia**, 14:30etan, plazan. **XIII. bizikleta festa**, 17:00etan, San Migel plazatik Olaburu frontoira. **Lagun arteko Olinpiadak**, 17:30etan. **Paita txakur txapelketa**, 18:30etan. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza **bertsolariak**, 22:00etan. Gai jartzailea: Igor Elortza. **Erroneria**, Gozo-gozo taldeagaz, 00:00etan, eta **Dj Festa**, ondoren.

>> Urriaren 7an, **XIV. nekazaritza eta artisautza azoka**, 10:00etatik 15:00etara, Andaparapen. **Dantzari eta agintarien kalejira**, 10:30etan, Montoitik plazara. **Meza nagusia**, 11:00etan, eta **Dantzari Dantza**, ondoren. **Pil-pil erako bakailao txapelketa**, 12:30etan. **Dantza saioa**, 18:30etan, eta ondoren, **errifen zozketa**. Arantza eta Pantxok alaituriko **herri afaria**, 20:30etan. Jaien amaiera, **ohiturazko bertsoak** kantatuz, 22:00etan. **Erroneria**, gauerdia arte.

### MUSIKA

#### DURANGO

>> Urriaren 5ean, **Non Servium** eta **Shock Waves**, 20:00etan, Plateruenean.

>> Urriaren 6an, **Los Chichos**, 22:00etan, Plateruenean.

>> Urriaren 12an, **Gau elektronikoa & friends**, 23:00etan, Plateruena kafe antzokian.

### ZINEMA

#### BERRIZ

>> **Brave**, umeentzako zinema, urriaren 5ean, 18:00etan, eta urriaren 7an, 17:00etan, kultur etxean.

#### ELORRIO

>> Urriaren 11n, **Pura vida**, 20:00etan, Arriolan.

### ZINEMA

#### DURANGO

Zugaza

#### Bel Ami. Historia de un seductor

Zuzendariak: D. Donnellan eta N. Ormerod  
barikua 5: 22:00  
zapateria 6: 19:30/22:30  
domeka 7: 19:30/22:30  
astelehena 8: 19:00/22:00  
martitzena 9  
(ikuslearen eguna): 20:00

Umeen zinema

#### Brave 2D

Zuzendaria: B. Chapman, M. Andrews  
zapateria 6: 17:00  
domeka 7: 17:00

#### ELORRIO

Arriola

#### La nieves del Kilimanjaro

Zuzendaria: Robert Guédiguian  
zapateria 6: 22:30  
domeka 7: 20:00  
astelehena 8: 20:00

#### ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

#### Profesor Lazhar

Zuzendaria: Philippe Falardeau  
astelehena 8: 20:00

Zineforuma

#### El guateque

Zuzendaria: Peter Sellers  
martitzena 9: 20:00



Urriaren 6an, 22:00etan, Durangoko Plateruenean

## LOS CHICHOS

1973tik oholtzarik oholta rumba flamenkoa zabaldu duen hirukotea da Los Chichos: kaleko eta maiteminar buruzko istorioak kantatzen dituzte. Guztira, hogeitaz gero buruzko daukate kaleratuta. Durangoko Plateruenean ariko dira, bihar.

**URRIKO AGENDA**

**ANDEREBIDE** 5ean, 19:00 Batzar nagusia. 15ean, 16:30 "Inteligencia Emocional en la mujer" ikastaroa. **5,15**

**SAN MIGEL JAIK**  
5ean, 18:00 Umeentzako berbera. 19:30 Poteoa. 22:30 Skasti, Zea Mays, Tximeleta  
6an, Mozorro eguna. 11:00 Kriterium soziala emakumeen kemena.  
12:00 Fanfarria "El Despiste". 12:30 Poteoa. 15:00 Bazkari herrikoia.  
17:00 XIII. Bizikleta festa. 17:30 Lagun arteko olinpiadak. 18:30 Paita eta txakur txapelketa. 22:00 Bertsolariak. 24:00 Erroneria  
7an, Errosario eguna. 10:00-15:00 XIV. Nekazaritza eta Artisautza azoka.  
10:30 Kalejira. 11:00 Meza nagusia. 12:30 Makailau txapelketa.  
18:30 Dantza. 20:30 Afaria, Arantza eta Pantxo. 22:00 Bertsoak, erroneria.

**IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA** **6,7,12, 13,14**  
09:00 Hainbat ibilbide (76-85 km)

**8,11, 16,17** **IURRETAKO UDALA**  
8an, 18:15 Emakumeen literatur tailerraren hasiera  
**IRAKURKETA KLUBAREN AURKEZPENAK:** 11n, 17:00 (3-4 urte) eta 18:00 (1, 2 mailak), 16an, 18:30 (cast), 17an, 19:00 (eus)

**BELDUR BARIK 2012! Juan Orobiogoitia Institutua** **15,19**  
Genero Indarkeriaren Aurkako Sentsibilizazio eta Prebentzio kanpainari

**17** **ODOL EMOTEA** 16:00-21:00 Odol emotea. Txonpolo elkarte

**IURRETAKO UDALA** 09:00 Iurretako kale azoka **18**

**18** **IBARRETXE KULTUR ETXEA**  
17:00 Umeen zinema: "Igelak & Sapoak" (umeak doan)  
19:00 Nagusien zinema: "Karamuk" (euskeraz, 2 euro)

**ZORION AGURRAK**

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Irailaren 13an **Ane Areitioaurtena Elexpe** jaio zen. Zorionak guraso izan berri diren Josu eta Nahikariri! Zelan gauak? Abadiñoeko kuadrilla.



Irailaren 9an **Kattalin Zarrabeitia Txintxurreta** jaio zen. Zorionak Eneko eta Arantzari, titulu berriagatik! Abadiñoeko kuadrilla.



Zorionak **Aitor** zure 5. urtebetetzean! Jarrai ezazu hain maitagarria izaten! Musuak zure anaia eta gurasoen partez. Besarkadak familiaren partez!



**Jone Iturrietak** irailaren 26an 9 urte bete zituen, **Peio Bikandik**, aldiz, gaur, urriaren 5ean. lurretako amaman partez ondo pasatu eguna! Zorionak eta jarraitu hain formalak izaten!



Irailaren 14an **Jon** jaio zen. Zorionak Ekaitz eta Mireiari! Eta musu erraldoi bat mundura etorri berri denari!



Durangoko neska ederrenak 16 urte bete ditu. Zorionak, **June!** Askok maite zaitugu! Elene, lone, Jone, Itxaso, Iraide eta Maria.



Zorionak, **Xabat!** Urriaren 4an urte bete egin dozu. Aita eta amaren partez, zorionak eta eskerrik asko gure bizitzara etortzeagatik! Musuak!



Herenegun **Nerearen** urtebetetzea izan zen eta opari bat emango diogu. Zorionak, amatxo! Besarkada handi bat eta mila musu zuretzat!



**Gaizkak** urriaren 3an, 3 urte bete zituen. Zorionak mutil haundi! Musu handi bat Abadiñoeko eta Lekitxoko familia guztiaren partez!



Zorionak, **Paule!** Domekan 4 urte egingo dituzu! Musu potolo eta besarkada handi bat danon partez! Maite zaitugu printzesa!



Zorionak, aitite **Angel!** Martitzenean zure urteguna izan zen. Espero dugu egun zoragarria igarotzea. Musu handi bat Maialen, Paule eta Nahien partez!



Abadiñoeko **Jon** eta **Martxelek** urriaren 4an eta 5ean urteak bete dituzte. Zorionak, bikote! Eta musu potoloak biontzat!



Gure etxeko printzesak 4 urte beteko ditu urriaren 9an. Zorionak **Izar!** Egun ona pasa etxeko partez eta musuak Oihanen partez!



**Eneko Barroetak** irailaren 22an 36 urte egin zituen, eta **Peru Barroetak** 3 urtetxo egingo ditu domekan, urriaren 7an. Musu bana biori, amama Esther eta izeko Itxasoren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Parte hartzeko, bidali kontakturako datuak.

Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

**BOTIKAK**

- Barikua, 5**  
09:00-09:00  
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)  
09:00-22:00  
• Lopez de Aretxaga (Torresolo 4 - Abadiño)
- Zapatua, 6**  
09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)  
09:00-13:30  
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)  
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)  
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)  
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)  
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
09:00-14:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 7**  
09:00-09:00  
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Astelehena, 8**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Martitzena, 9**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Eguaztena, 10**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
- Eguena, 11**  
09:00-09:00  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak** .....112  
**DYA** .....94 620 28 00  
**Gurutze Gorria** .....94 681 09 49  
**Osakidetza** .....94 600 72 00  
**Ertzaintza** .....94 466 93 00  
**Suhiltzaileak** .....112
- GARRAIOAK**
- Euskotren .....902 54 32 10  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño .....94 681 44 70  
Matiena .....606 45 99 88  
Durango Geltokia .....94 681 10 01  
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40  
J.L. Uriarte .....670 40 20 02  
I. Estebez .....670 67 82 73  
M Galeano .....670 40 93 30  
Iurreta .....94 620 15 65  
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz.....94 682 45 84  
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz.....94 682 40 36  
Durango.....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88

**EGURALDIA**

- 14 **27°** BARIKUA ☀️  
14 **27°** ZAPATUA ☁️  
14 **25°** DOMEKA ☁️  
14 **26°** ASTELEHENA ☁️  
13 **24°** MARTITZENA ☁️

**AZOKA-BASERRITIK PLAZARA**



**Abadiño (Traña-Matiena)** -  
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera  
**Durango** - Zapatu goizetan  
**Zornotza** - Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

- Letxuga ..... 0,80 euro  
Tomatea ..... 3,50 euro/kg  
Piperrak ..... 1,70 euro/doz  
Bainak ..... 5 euro/kg  
Kalabazina ..... 1,80 euro/kg  
Azenarioak ..... 1,50 euro/tx  
Arraultzak ..... 3,60 euro  
Idiazabal gazta ..... 16,50 e/kg  
Gari ogia ..... 3,30 euro



# “Nork esango luke munduko puntan euskara irakasle ibiliko nintzenik!”

Zeelanda Berrira urte beterako joan, eta euskara ikasteko interesa duen jendea topatu du kazetari iurretarrak

**A**ucklandetik lurretara hamaika orduko diferentzia (hamar gehi bat) eta milaka kilometro egon arren, Euskal Herrian gertatzen dena gertutik jarraitzen du Izaskun Ellakuriagak. Bizkaia Irratiko kazetaria da, Gerediaga elkartearen eta Bertsozale elkartearen hainbat ordu sartutakoa. Esperimentzia berrien bila eta ingelesari astindua ematera egin zuen hegan apirilean Zeelanda Berrira, eta bertan gauza asko ikasten dabil. Bertakoak Bizkaia Irratiko blog baten eta lekukom.tumblr.com-en idazten ditu.

**Zeelanda Berrira joan zinen apirilean. Zelansortu zitzaizun asmo hori?**

Aspalditik nire ingeles pobreak astindua emateko gogoia neukan, eta sekula ez nuen tarterik hartzen horretarako. “Orain edo sekula ere ez”, pentsatu nuen orain urtebete, eta abenturari ekin diot aurten.

**Ingelesa hobetzeko ahaleginetan, euskara erakusteko aukera sortu zitzaizun bertako natibo batez. Zelan ba?**

Foro batean, euskaraz agurtzen nuela ikusi eta euskalduna izango nintzela pentsatuz bat egin zuen nirekin. Orain ikasle-irakasleak gara. Astean behin euskara klasea daukagu, eta trukean nik ingelesa praktikatzan dut. Nork esango luke munduko beste puntan euskara irakasle ibiliko nintzenik! Beste emakume batek ere interesa erakutsi dit. Laster euskaltegia zabaldu beharko dut.

**Zelako jendea ezagutzen ari zara Zeelanda Berrian? Zelako kultura da bertakoa?**

Atzerritar asko dago, batez ere Aucklanden, egun bizi naizen hirian. Eta ezagutu, munduko paraje ezberdinetakoak ezagutzen nabil. Askok Asiako herrialdeetakoak. Hiri

honetako kultura oso anitza da eta aberatsa alde horretatik.

**Kultura eta hizkuntza maoriaren inguruko hainbat txio idatzi dituzu Twitterren. Hizkuntzaz zeozer ikasi duzu?**

Hizkuntzaz baino gehiago maoriaren kulturaz irakurri, ikusi eta ezagutu dut gehiago. Nire asmoen artean badago hizkuntza maoria ikastea, eta euren ohitura, sinetsakera, historia eta abarrean gehiago sakontzea.

**Urriaren 14an hasiko da Munduko Triatloia Final Handia, eta boluntario ibiliko zara. Zelan sortu zaizu aukera hori?**

Aucklanden zer gertatzen dabilen egunean-egunean jakiteko sare sozialak erabiltzen ditut eta horrela jakin nuen triatloia finala izango zela eta boluntario bila zebiltzala. Jendea ezagutu eta ingelesa praktikatzeko aukera ona zela pentsatuz izena eman nuen.

**Bitxikeria ugari bizi izan dituzu.**

Asteon ‘Cocineros españoles en el mundo’ programa egiten duen tipoagaz egon naiz, eta ez dakit noiz, baina programetako baten agertuko naz, Aucklanden zabaldu duten txurro postu baten.

**Munduaren beste aldean egon arren, Euskal Herriagaz kontaktuan zabilteza teknologia berriekin, ezta?**

Batzuetan Internetekin borrokan ibili arren, teknologia berriak kontuen berri izateko ezinbesteko tresna bihurtu ditut. Etxekoekin eta lagunekin komunikatzeko ere inbento ederra dira.

**Euskal Herrian hainbat proiektutan zaude inplikaturik. Bizkaia Irratian lanean, bertsozale elkartearen, Gerediaga elkartearen... Saltsa horien falta igartzen duzu?**

Bai eta ez. Durangoko Azoka, Bizkaiko Txapelketa, irratiko lankideen egunerokoen joan-etorrien falta badaukat. Baina online gertutik jarraitzen ditut. Ahal dudanean ere ahalegintzen naiz distantziatik ekarpenak egiten.

**Sanmigelak zelan pasatu dituzu erbestean?**

Kasualitatez, iurretara bik egun horretan hasi zuten Zeelanda Berrian oporraldia eta San Migel Egunean alkarrekin afaldu eta trago bat hartzeko aprobetxatu genuen.

**Asteon hasiko dira Bizkaiko bertsolari txapelketako kanporaketak. Jarraituko dituzu Aucklandetik?**

Distantziatik eta orduen diferentziak uzten didan neurrian txapelketa, azoka eta horko gainontzeko ekimenak gertutik bizitzen jarraituko dut.

Izaskun Ellakuriaga •

Kazetaria  
Iurretarra da

## Aurreiritzia

Gizakiok, nahiz eta behin eta berriro saiatu metaforen bitartez pentsatzen, ezin dugu aurreiritzirik gabe funtzionatu. Esan genezake aurreiritzi mota asko daudela eta unibertso txiki bat ere osatzen dutela. Horietariko batzuk aurreiritzi ideologikoak dira, besteen iritzia onartzeko gabezia agerian uzten dute elkarbizitza antolatze oso kaltegarriak dira.

Beste aurreiritzi batzuk azalaren kolorearekin lotuta daude eta xenofobiara eraman gaitzakete. Jakina, hauek ere oso arriskutsuak dira.

Badaude klasistak kontsidera daitezkeen aurreiritziak ere, diruarekin edo boterearekin erlazionatuak, eta zorigaitzez gure artean ondo errotuta daudenak.

**Badaude klasistak kontsidera daitezkeen aurreiritziak ere**

Badaude beste aurreiritzi batzuk oso aktibatuak ditugunak, eta horiek bereziki ezagutzen ez ditugun pertsonen aplikatzen dizkiegu. Hau da, nahiz eta ez ezagutu, janzkeragatik, itxuragatik, entzun dugunagatik kalifikatzen dugu.

Aipatutako aurreiritzi guztiek sustrai komuna dute: tolerantzia falta.

Antzinako Greziatik, gizakiok gizartearen beharra dugu gure gizatasuna osatu ahal izateko, eta hori horrela bada, nahitaez ondoan daukagun laguna gu bezalako dela pentsatzea izango litzateke zuzenena. Baikortasun antropologikoan erori gabe, denok ditugu antzerako miseriak eta deskubritu beharreko bertuteak.

Horregatik, inor epaitu baino lehen komeni zaigu albokoari aukera bat ematea, batez ere, hurrengoan gu gure ere alboan suerta gaitzkeelako eta orduan tratu justua nahiko dugulako.



**HARPIDETU ZAITEZ IRRIA ALDIZKARIRA  
2012KO IRAILAREN 16 BITARTE ETA  
OLGETANEKO IKUSKIZUN BONOA  
OPARITUKO DIZUGU**

Ebaki eta bidali edo eraman orri hau zure datuekin helbide honetara: Berbaro Elkarte, Pinondo Plaza 1, 1go solairua, Durango KODEA: OLGETAN 12



IZENA: \_\_\_\_\_  
ABIZENA: \_\_\_\_\_  
E-POSTA: \_\_\_\_\_  
TELEFONOA: \_\_\_\_\_  
HERRIA: \_\_\_\_\_

